

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

239. Zenb.

1994.eko Uztaila
315 pta./14 libera
(B.E.Z. barne)




**DENBORAPASA GOZOA,
BIZIBIDE ASTUNA**

Bigarren eskuko altzariak etxean

JOSE XIMAL ETA EUGENIO BOTAS



2 Gaua da. Eguna **erdipurdi** pasa duzu. Botika bat komeni zaizu, baina goardiako farmazia urruti dago. Edo ez dakizu zein dagoen irekita. Eta, gainera, ohean zaude. Ez duzu kaleko arropa janzteko gogorik. Baina botika hori gabe ez **duzu onik izango**. Zer egin? Ba, «Motofarmazia» enpresara deitu telefonoz.



Gurean, Bilbon sortu zen lehendabizi. **Sortzaileak** asturiarrak dira: Eugenio Botas informatika-ikaslea eta Jose Ximal *Euskaldunon Egunkariako* argazkilarietako bat. Eugenio gau batean botika batez **behartu** zen, eta ezin lortu! Horrela sortu zuten enpresa hau Bilbon. Eugenio Botasekin hitz egin genuenean, Donostiako bi mutilekin ari zen lanean, enpresa Donostiara ere **hedatzeko asmotan**. Santanderren ere izango da abuzturako. Bilbon oso **harrera** ona izan dute, eta horregatik animatu dira enpresa handitzera.

Lana gauez egiten dute, ilunabarreko zazpi t'erdietatik goizeko bederatzi t'erdia arte. Larunbat-igandetan eta jai-egunetan, ordea, 24 orduetan: «Jendeak denetik eskatzen du: botika, **pixoihalak**, txakurrarentzako jeneroa, **preserbagailuak**... **Bitxikeriak?** Behin emakume batek deitu eta farmazia etxe parean zuen. Preserbagailuak eskatzen dituztenean, lehendabizi zera galdetzen digute, ea azkar iritsiko garen. Guk, **asko jota**, hoge minutu behar ditugu **bezeroarengana** iristeko». Bezeroak 600 pezeta ordaintzen ditu, baina ez du dagoen lekutik mugitu beharrik.

ERDIPURDI.- Erdizka, ez ondo ez gaizki. Regular.
EZ DUZU ONIK IZANGO.- No te sentirás bien.
GUREAN.- Gure artean.
SORTZAILE.- Asmatzailea. Creador/a.
BEHARTU ZEN.- Premia izan zuen. Se vió necesitado.
HEDATU.- Zabaldtu. Extender.
HARRERA.- Abegia, Acogida.

PIXOIHAL.- Pañal.
PRESERBAGAILU.- Preservativo.
BITXIKERIA.- Cosa curiosa, curiosidad.
BEHIN.- Una vez, en cierta ocasión.
ASKO JOTA.- Gehienez. A lo sumo.
BEZERO.- Cliente.
BEHAR.- Premia. Necesidad.

AURKIBIDEA

IKUSMIRAN ERREPORTAIA ELKARRIZKETA

ELKARRIZKETA LABURRAK 2 ERREPORTAIA BAI, ESAN ELKARRIZKETA

PORRUSALDA 1 2 ERREPORTAIA HAU MUNDUA 1 2 ERREPORTAIA LIBURUAK 3 ZOKOMIRAN

ERREPORTAIA EUSKARA LANTZEN TESTA ERREPORTAIA IPUINA JOLASEAN ZINEA

KOMIKIA SOLUZIOAK HOROSKOPOA 2

Eugenio Botas eta Jose Ximal 2	2
Festarik festa lan eta lan 2	4,5
Gerardo Markuleta: "Elkarren parean daude Otto Pette eta Obabakoak" 3	6,7,8,9
Ingelesa nagusi bada ere, galesera bizirik 2	10,11
.....	12
Gehiago luzatu 2	13
Errioxako helduak ere euskara ikasten 2	14,15
Charo Arruti: "Ileapaindegian barruak askatzen ditu jendeak" 2	16,17
.....	18
Bigarren eskuko altzariak etxean 3	19,20,21
.....	22
Eguzkiaren jira-birak eta ordua 2	23
.....	24
Ramon Etxezarreta: "Unibertsitatean egin ninduan euskaltzale" 3	25,26,27
Liburu elektronikoaren txanda 2	28,29
Sorozabalen arrasto fina (Rufino Iraola) 3	30,31
Besteak hor konpon? 2	32
Denbora gozoa, bizibide astuna 3	33,34,35
Hogeita hamar urteren buruan (Arantxa Iturbe) 3	36,37
.....	38,39
Inperio britainiarraren azken harribitxia (Begoña del Teso) 3	40,41
Hilobia zabalik (Pedro M.º Ramos Miguel) 2	42,43,44,45
.....	46
.....	47

HABE MAILAKA IRAKURRI

Irakurle hori:

Aldizkari honetako erreportaiek eta zenbaki bat dute artikuluen zailtasuna adierazteko.

Beraz, eta HABEren programazioa oinarri, zailtasun-mailak 1 2 3 4

zenbakiak ipiniz adierazten jarraituko dugu. Dena den, ez nahastu programazioaren urratsekin.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Bereuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna



© Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorra: HABE.
Tel. (943) 42 91 20
Faxa: (943) 43 01 62
ERREDAKZIOA:

Iñaki Ugalde
Alex Mungia
Asis Eizmendi
Ion Imanol Iturrioz

MARRAZKIGILEA: Enrike Larraite

AZALEKO ARGAZKIA:
Xabier Elgezabal

IRARKOLA:

Artes Gráficas
Rontegui S.A.L.

LEGEZKO GORDAILUA:

BI-2251/81

ISSN: 0212-6788

Ferialariak uda-partean ibiltzen dira gehienbat


FESTARIK FESTA LAN ETA LAN

2 Festak hasiko dira Euskal Herriko auzo batean. Eguerdiko ordubata da eta ez dabil inor inguruan. Dena geldirik dago, edo ia dena. Batzuk lanean ari dira. **Aurki** bazkaltzeko garaia da: «Orain ezin dut zurekin hitz egin. Zatoz astelehenean, arratsaldeko lauretan» esan digu Lolik. Loliren **sendiak** herensugea edo dragoia ekarri du festetara. Dragoi horren barruan ibiliko dira arratsaldean umeak **jira eta bira**. Ondoan gazte batzuk **jo eta ke ari dira beharrean**, musika jotzeko **oholtza** jartzen. Euskal musikaren eta txalapartaren konpasean ari dira lanean. Guk, ordea, tonbolara jo dugu. Tonbolaren **gibelera**. Atea jo dugu, kos-kos.

Mutil beltzaran batek erantzun digu. Tonbolaren arduradunak mutilarekin hitz egiteko esan digu, hark badakiela hango berri eta: «Ni Mani Gelia naiz, algeriarra. Hogeita lau urte ditut». Hogeita bi urterekin ailegatu zen Espainiara, Alicantera **hain zuzen**, eta bi aste daramatza tonbola honetan lanean. Aurreko lanbidea utzi eta *Antojitos* tonbolara etorri da: «Autotxoketan lan egiten nuen, baina nagusia arrazista zen, ez zidan ordaindu nahi. Orain gustora nago». **Ilunabarrean** hasten dira boletoak saltzen, eta **ordu txikiak** ere hor segitzen dute, zazpi metro luze dituen *Antojitosen*: «Ondo ordaintzen didate, 5.000 pezeta eguneko eta ondo bizi naiz. Jatetxe edo tabernatan egiten ditugu **otorduak**. Urriaren **hondarrean** oporrak, hilabete. Gazte-jendearekin lan egitea gustatzen zait, edadeko jendearekin, ordea, ez. Hiru urtetarako hartu naute» esan digu Mani musulman gazteak. Manik lana bukatzen duenean, inguruan dantzalekuren bat badago, hara joango da. Izan ere, neskak gustatzen zaizkio eta bacalao-

-musika ere bai. Baina hori baino maiteago du andregaia, Galizan dauka zain. Tonbola hau —negu-partean lan gutxiago egiten dute— batez ere Galiza aldean ibiltzen da. Zaragozara eta Valladolidera joan baino lehen, abuztuan han ibiliko dira, uztaillean San Ferminetan **gelditua egin** ondoren. Arduraduna ere, Carlos Tesouro,

galizarra da. Baina arduradunaren nagusia errioxarra. Tonbola honetan —beste bat ere badu 20 metrotakoa— lau langile ditu: bat Logroñokoa, bestea Vigokoa, algeriar bat eta yugoslaviar bat. Carlosek aurki hamabi urte egingo ditu tonbola honetan. Eta dantzalekura **joan orde**z nahiago du lo egin, eta herrietako



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

AURKI. - Laster. Dentro de poco, pronto.
SENDI. - Familia.
JIRA ETA BIRA. - Jira eta buelta. Dando vueltas.
JO ETA KE ARI BEHARREAN. - Trabajar a tope.
OHOLTZA. - Tablado.
GIBEL. - Atzea.
HAIN ZUZEN. - Hain juxtu. Concretamente.

ILUNABAR. - Arrastiria. El anochece.
ORDU TXIKIAK. - Gauerdia ondoan ondoko lehen orduak. Las altas horas de la noche.
OTORDU. - Egunean zehar egin ohi den janaldi bakoitza, bazkaria edo afaria.
HONDAR. - Bukaera, amaiera.
GELDITUA EGIN. - Keda egin. Hacer una parada.

JOAN ORDEZ. - Joan beharrean, joan partez. En lugar de ir.

festetan, **aisialdian** nahiago du bizikleta hartu eta parajeak ezagutu: «Dena den, tonbola batean ia beti dago zereginen bat. Muntatu, zerbait **hondatu** bada konpondu, fresneriari erreparatu, pintatu, garbitu, jendaurrera azaltzeko norbera txukundu, jendearekin harremanak... Jendearekin normalean ondo moldatzen gara. Baina **ilezko hartzatxoa** tokatu eta bizikleta nahi duena haserretuko egingo da igoi. Nola emango diozu horri bizikleta? Orduan igoi hasiko da esanez bigarren eskuko jeneroa daukagula, edo lapurtutakoa, edo ondo ez **dabilena**, edo oso sari gutxi **banatzen** dugula. Eta hemen ez dago horrelakorik. Dugunaren erdia banatzen dugu, eta ez dago ezer bigarren eskukorik».

Krisiaren astindua

Krisia **nozitzen** duten galdetu diogu Carlosi: «Ez da horrenbesterako. Jende guztia kexuka ari da, eta **kexuaren kexuz**, azkenean **sinetsi** egiten dugu». Baina denak ez ziren **iritzi** berekoak. Manuel Mendez, 23 urteko portugaldarra, adibidez. Festa-lekuak gutxitzen ari direla dio gainera: «Hamabost urte egin ditut herriz herri, eta aspertu naiz, dena saldu dut. Bukatu da. Izeba bati laguntzera etorri naiz tiro-pitxoira. Taberna bat jarri nahi dut Donostian». Izan ere, andregaia, Manoli, Donostiako Altzakoa du, eta ezkondu egingo dira laster batean. Manoli ere ibilia da ferian, gutxi baina: «Askoz ere gogorragoa da lanbide hau emakumeontzat. Karga handiko burdinak **garraiatu** behar dira, eta gero egun guztian zutik. Oso denbora gutxi egin nuen, escalestris batean, hilabete eskas, eta izugarri **argaldu** nintzen. Otartekoak jan behar, diru gutxi ordaintzen zidaten». Eta jendearen portaerarekin ere ez daude gustora: jeneroa hautsi karabinarekin, **zotzak** harrika bota, **muturjoka ibili** behar askotan, bihotzetik gertu egindako **labankada** baten marka ere erakutsi zigun Manuelek... Eta gastuak asko: «100.000 pezeta baldin badituzu, erdia **jeneroa** erosteko behar duzu tiro-pitxoian. Bizimodu honek jateko adina ematen du

juxtu-juxtu, eta hortik aurrera ezer gutxi» seriotu zaigu Manuel. Hala ere, Manuelen ilobatxoak, Daniak, feriaz feria ibili nahi du. Orain Manolirekin bizi da eta Manoliren ahizparekin, M.^a Carmenekin. Beraz, ez dauka barnetegira joan beharrik. Izan ere, gurasoek ez dituzte haurrak berekin eramaten beste herriren batera joan behar dutenean. Asteburuan barnetegira itzuliko dira haurrak jasotzera kotxea hartuta: «Baina ferianteen seme-alabek azkar uzten dute eskola. Hamahiru-hamalau urterekin etxekoei laguntzeko lanean» adierazi digu Manuelek.

Tokiaren **alokairua** ere ez omen da merkea. Gurean bada ferialarien elkarte bat, eta **gaitzerdi**. Horrelakoetan, leku jakin batean dauden ferialariek bat eginda ordaintzen diote alokairua udaletxeari. Elkarterik ez badago, **enkantean** ateratzen da tokia.

Sendi osoarekin herriz herri

Askoz gustorago bizi da Loli. **Bitan** joan gara eta bitan lanean harrapatu dugu: plantxaketan eta rulotaren **zorua** eta platerak garbitzen. Hiru gauza egiten ari zen ia batera: etxeko lanak, erdi-esna erdi-lo zegoen seme txoa **begiratu** eta gurekin hitz egin.

Lolik 20 urte ditu, eta bi seme 2-3 urtetakoak, eta Bilbo aldean ibiltzen dira batez ere: «Gustatu egiten zait herriz herri ibiltzea. Ezin naiz bestela moldatu». Sestao eta Barakaldokoak dira sendikoak eta herri askotan daude **barreiatuta**. Lolik **dragoitzarrean** ibiltzeko sarrerak saltzen ditu. Hiru urte daramatza dragoitzarrean lanean. Ohituta dago lan egitera, eta ez dela lanbide oso gogorra dio. Baina gogortzen ari omen da, jendeak gutxiago gastatzen omen duela honelako gauzetan. Baina ez du lanbide hau utzi nahi. Ezta dragoitzarra ere.

Euskal musika

Euskal Herrian, zenbait herritan, herritarrek protesta egin izan dute ferianteen ez dutelako euskal musikarik jartzen. Eta jarri dutenean, poztu ere bai. Beasainen, esate batera. Gai hori ere aipatu dugu feriazalaren batekin, Carlosekin alegia: «Hori hemen bakarrik gertatzen da. Nire nagusiak badu euskal musika. Legazpira joaten denean behartu egiten dute euskal musika jartzera» erantzun digu. Baina guk alde egin dugunean ez zen musikarik entzuten. Ordu pare bat falta da gurasoak eta umeak etortzeko. Zoritzarrez, urtetik urtera «zarata» gutxitzen ari da.



AIISIALDI.- Ocio, tiempo libre.
HONDATU.- Alferrik galdu, matxuratu. Estropear.
ILEZKO HARTZATXO.- Osito de peluche.
IBILI.- Funcionar.
BANATU.- Partitu. Repartir.
NOZITU.- Jasan, pairatu. Sufrir, soportar.
KEXUAREN KEXUZ.- Kexuaren poderioz. A base de quejarse.

SINETSI.- Sinistu. Creer.
IRITZI.- Ustea. Opinión.
GARRAIATU.- Karreatu. Transportar.
ARGALDU.- Flakatu, mehetu.
ZOTZ.- Palillo.
MUTURJOKA IBILI.- Darse de puñetazos.
LABANKADA.- Navajazo.
JENERO.- Mercancía.
ALOKAIRU.- Errenta. Alquiler.

GAITZERDI.- Eskerrak! ¡Menos mal!
ENKANTE.- Subasta.
BITAN.- Bi aldiz edo bider.
ZORU.- Suelo, piso.
BEGIRATU.- Zaindu. Cuidar.
BARREIATU.- Zabaldtu, hedatu. Extender, repartir.
DRAGOITZAR.- Dragoi handia.

GERARDO MARKULETA: «Elkarren parean daude *Otto Pette* eta *Obabakoak*»


3 Hogeita hamar urte beteak, zer ez du **jorratu** Gerardo Markuleta Gutierrezek? Literatur kritikoa da, poesia idazten du, haur-literaturan segi nahi du, poesi errezialak egiten ditu, Gasteizko Irakasle Eskolan euskara-irakasle, Euskal Filologian eta Filologia Hispanican lizentziatua. Ikastola batean lan finkoa zuen, zuzendari akademikoarena, eta utzi egin zuen. **Zinpeko itzultzailea** da, **EIZIE** eta **EIEko** partaide, Udako Euskal Unibertsitatean, itzulpengintzaren alorrean, antolatzaile eta irakasle ibiltzen da, Durangoko Azokarako hainbat itzulpen —Julio Cortazar, Joseba Sarrionandia— ari da burutzen eta abar. Beraz, hizketagaiak soberan.

HABE. - Julio Cortazarren *Octaedro* itzuli zenuen.

GERARDO MARKULETA. - Oso gustokoa dut. Nahiko ondo funtzionatu omen du itzulpen horrek. *Rayuelaren* 7. kapitulua ere euskaratu dut eta errezialdietan irakurri. Asko ikasi dut euskarari eta itzultzeari buruz. Nere literaturan **ezinbesteko** erreferentzia da. Literatur hizkerarekiko ardura handia erakusten du. **Onuragarria** da euskararentzako haren hizkuntz borroka horiek gurera ekartzea, nahiz eta ezin den **lehentasuna** izan gazteletatik itzultzea. Literaturako zerbait euskaratzen denean, hori euskal literaturaren zati da, eta alderantziz; hori argi geratu zen iazko UEUko ikastaroetan, baina euskaldunok, orokorrean, ez dugu oraindik **zeharo** ulertu hil ala biziko kontua dela hori. Edo irakurlea hortik sartzen da edo euskal literatura agian oso era mugatuan geldituko da. Nahiz eta kontuan hartu behar den hizkuntza handiak txikia jaten duela, erabateko **gardentasuna** ez dela

ona, eta zaindu egin behar dela zer itzultzen den eta, batez ere, nola itzultzen den. Adibidez, oso penagarria da Euskal Herriko hiritarren %60ak, behetik jota, *Sarrionandiaren* poesia ez ezagutzea, edo *Xabier Leteren* poemak erdaldun batek hemen ezin irakurri ahal izatea. Hor erantzukizun handia daukagu literatur **iruzkinak** egiten

ditugunok. Nik uste literatur iruzkinak egiten dituenak irakurlearen aurretik joan behar duela, eta batzuk irakurlea baino atzerago daudela, zailtasun asko dituztela itzulpenak irakurtzerakoan. Hor ikasketa-prozesu bat egin behar da, hori gozatzen ere ikasi behar da. Eta jakina, irakaslearen lana ezinbestekoa da, eta oraindik ere irakasle asko dago



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

JORRATU. - Landu. Cultivar, trabajar.

ZINPEKO ITZULTZAILE. - Traductor jurado.

EIZIE. - Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartea.

EIE. - Euskal Idazleen Elkartea.

EZINBESTEKO. - Derrigorrezkoa, behar-beharrezkoa.

ONURAGARRI. - Ongarria, probetxuzkoa.

LEHENTASUN. - Preferencia.

ZEHAHO. - Erabat, guztiz.

GARDENTASUN. - Transparencia.

IRUZKIN. - Comentario.

itzulpengintzan gertatu den iraultza txiki horrekin konturatu ez dena. Oso argi esan behar da, Andu Lertxundik esaten duen bezala, euskal literaturan azken **boladan** gertatu den daturik inportanteena itzulpengintzaren aurrerakada dela, eta aitortzen du **altxor** ikaragarria aurkitu duela Literatura Unibertsaleko **ondarean**. Baina hor daude baita ere, *Igelako bildumak*, *Ereinen Bartleby* saila... Euskal itzulpenekin **amorratuta** dagoen batentzat sendabide segurua da, adibidez, *Herman Melvilleren Bartleby* izkribatzailea *Juan Garziak* itzulia edo *Stevensonen eta Maria Garikanoren Altxor Uharte*a, edo *Katedrala*, *Raymond Carver* eta *Juan Mari Mendizabalena*...

Andu Lertxundi eta Bernardo Atxaga

H.- Kanpokoa geureganatu egin behar dugu. Baina badaukagu *Atxagaren* literaturaz at, **atzerriko** hizkuntzetara itzultzeko modukorik?

G.M.- Ez ugari, baina bai. Errezelo handia sentitzen dugu hori egiteko. Eta kanpoan ez dago **jakinmin** handirik. Ez daukagu kanpoan enbaxadore onik. *Atxaga* da nagusia. Baina baditugu enbaxadore txar asko, eta horien artean *Jon Juaristi* aitatu behar da egiten ari den kontrako **sator**-lanagatik. Ezin dut ulertu konbertsoaren sindrome hori. Ez du aldeko lanik egiten, eta gainera kontrako lana egiten du. Euskal literatura **puztutako** fenomeno da eta subentzioei esker bakarrik bizi dena. Betiko diskurtso aspergarria. Konturatu beharko luke, esate baterako, euskal poesian asko dugula atzerriragarria, hor dugula *Sarrionandia*, Espainiako Estatuko eta kanpoko poesian zeresan handia duena; gaztelez azterako da Durangoko azokan... Eta narratiban *Andu Lertxundi*, *Otto Pette* eta *Obabakoak* elkarren parean daude. Ordua da Anduren lanak erdaretarako zubi hori igarotzeko. Zoritxarrez, literatura hizkera bitan edo hirutan iaioa den oso jende gutxi dago.

H.- Zuk abantaila duzu, bi filologia dituzu.


G.M.- Markuleta Gutierrez naiz, mestizoa kulturalki eta linguistikoki. Baina hizkuntza txikiaren alde egin dut batez ere.

H.- Zu bezalako mestizo bat gustora ibiliko da GALEUSCAN, ezta?

G.M.- Gasteizen izango da aurten: Itzulpengintza, literatur generoen nahastea eta mestizaia. Horien inguruko **gogoetak**. Estatuko literatura eta kulturetan gertatu den mestizai prozesu hori jorratuko dugu: **etorkina**, etorleak. Nola jokatu dugun eta nola jokatu behar dugun. «Aldea globalaren» garaian zergatik Madrilen ez den ezagutzen beste hiru-lau literaturatako ia ezer...

Gerardo Markuleta Gutierrez naiz, mestizoa»

H.- Zuk zeuk **sortze-lana** ere egin duzu. Idazle izanik, nola moldatzen zara idazleen liburuak kritikatzeko?



Julio Cortazar eta Joseba Sarrionandiaren lanak ari da itzultzen.

G.M.- Irakurle amorratua naiz. Egiten dudana da nere irakurketei buruzko gogoetak publikoan egin. Inor **mindu** gabe, edo horretan saiaturia behintzat, literatur kritika hain ahul egonda gurean egiten diren **maila apaleko** komentarioak osasungarri gerta litezke benetako kritikak baldin badira...



BOLADA.- Denboraldia. Temporada.

ALT XOR.- Gordailua. Tesoro.

ONDARE.- Patrimonio.

AMORRATU.- Ernegatu, sutu. Rabi, enfurecer.

ATZERRI.- Erbestea. Aurkakoa: aberria.

JAKINMIN.- Jakingura, jakinnahia. Curiosidad.

SATOR.- Topo.

PUZTU.- Haizatu, handitu. Hinchar.

GOGOETA.- Hausnarketa. Reflexión.

ETORKIN.- Inmigrante.

SORTZE-LAN.- Trabajo creativo.

MINDU.- Doler, causar dolor.

MAILA APAL.- Bajo nivel.

Hala ere badut kezka bat,
«Larrosak noizean behin» Jon
Iriberri **ezizenez** argitaratu nuen,
eta jendeak ez du lotzen liburu
hura nirekin. Nik pena hori dut eta
aurtengo **erronka** neure burua
sortzailatzat ezagutaraztea da.

H.- Udaostean aterako du
Ereinek zure «Sagararren
hausterrea». Aurrekoarekin
erkatuta, alderik bai?

G.M.- Bada **berrikuntzarik**.
Aurrekoan **taju** sinbolikotik
eguneroko hizkerara egin nahi
izan nuen salto. Ahalegin horri
eutsi diot, baina sakonduz.
Literatur hizkeran ahalegin handia
egin dut erritmoa eta **iruditeria**
lantzen, poesi hizkera, alde
batetik **trinkotuz** eta bestetik
soilduz. Eta uste dut garrantzizkoa
dela. Gaur egun euskal poetek
gutxiegi hitz egiten dute
poesiaren **adierazpideez**, asko hitz
egiten da abstraktotasuna edo
lurrari **atxikitako** poesia egiten
den, baina literaturak erabili
behar duen poesi hizkeraz gutxi.

Baditugu erdaretara itzultzeko moduko idazleak»

H.- Poesiaz ari garela, zer
iruditzen zaizu «Lubaki»?

G.M.- Onuragarria da euskal
literaturara jende berria
inguratzea eta badira ahalegin
interesgarriak zeresana emango
dutenak: *Xabier Aldai, Harkaitz*.
Cano... Baina euren
adierazpenetan ortodoxoegi
jokatzen ote duten nago. Literatur
iharduna **bakarkako lana** da, eta
Susak gehiegixto bereganatu ote
dituen edo nago. *Lubakien*
barruan piloa aritze hori...
Esloganen pean **jausteko** arriskua
dago, *Susako* azken alea
adierazgarria da. Literatur
hizkeran ari da eskolatxo bat
sortzen, neri gehiegi gustatzen ez
zaidana, alde formalean.
Detailtxo bat: puntuazio-markarik
gabeko poemak. Ez da batere
adierazgarria, batere beharrik

gabe irakurleari jartzen zaion
oztopo bat. Horrelako okerbideen
arriskua ikusten dut.


H.- Haur-literaturarekin ere
badituzu harremanak.

G.M.- Urte batzuk
badaramatzat UEUko Literatura
Sailean. Duela pare bat urte
ikastaro bat egin genuen Iruñean,
eta aukera horretaz baliatuz haur-
literatura ezagutu, irakurri eta
landu egin nuen. Eta uste dut hor
ere badirela idazlanak, itzultzeko
modukoak, eta uste dut oso
kezkgarria dela euskal
argitaletxeek euskal literaturako
haur-literaturazko lanak
erdaretara bideratzeko orduan
erakusten duten
ajolagabekeria.

H.- Ze ajolagabekeria?

G.M.- Euskaraz bakarrik
aritzeko aukera egin dutelako.
Batere ahaleginik ez gure
idazleen lanak kanpoan
ezagutarazteko. Gure herrian oso
idazle gutxi dago bere gosaria
literaturatik irabaz dezakeenik,
eta hori da oso merkatu
murriztean mugitzen garelako,
eta norbaitek esango dit, badator
hau gogoraztera literatura
soziolinguistika eta marketina ere
badirela. Ba, bai. Badira. Eta hori
onartzen ez dugun bitartean
geure sutondoan ibiliko gara gure
txilborrari begira.

H.- Euskal argitaletxeek
kanpoko haur-literatura
gureganatu dute.




«Euskal literaturan azken boladan gertatu den daturik inportanteena
itzulpengintzaren aurrerakada da».

EZIZEN. - Izenordea. Pseudónimo.
ERRONKA. - Reto, desafío.
ERKATU. - Alderatu, ondoratu,
konparatu.
ALDE. - Desberdintasuna.
Diferencia.
BERRIKUNTZA. - Berri(tu)+kuntza.
Renovación. Era berean:
antolakuntza, aurkikuntza,
ikaskuntza...
TAJU. - Itxura, era. Forma.

IRUDITERIA. - Irudi-multzoa.
Conjunto de imágenes,
imaginiería.
TRINKOTU. - Densificar.
ADIERAZPIDE. - Expresión.
ATXIKI. - Lotu. Atar, unir.
BAKARKAKO LAN. - Bakoitzak
bakarrean egin beharreko lana.
Trabajo personal.
JAUSI. - Erori.
ADIERAZGARRI. - Significativo.

OZTOPO. - Eragozpena, trava.
AJOLAGABEKERIA. -
Ajolagabe+keria. Utzikeria.
Dejadez. -KERIA atzizkiak akatsa
edo kualitate txarra adierazten
du. Adibidez: harrokeria,
alferkeria, nagikeria...
TXILBOR. - Zila. Ombligo.



G.M.- Hori beharrezkoa da. Normaltze-prozesuaren adierazgarri. Mundua askoz ere zabalagoa da gure herria baino.

H.- Mundua-Euskal Herria... Patziku Perurenarekin ez zaude oso konforme.

G.M.- Begira. Egin ditut gogoetak Patzikuri buruz idatziz. Patzikuk egiten duen lana alde batzuetatik onuragarria da: hizkeraren aldetik, inork ez dakien baina hor dagoen **euskal senaren** langintzan, punto. Idatzi aurretik egin beharreko gogoetan ikaragarri **herren** dabil. Literatur planteamentuetan ez da batere garbia. Zer irakurtzen duen galdetuko nioke. *Montaigne* ezagutu du oso **kutun duen Gil Berak** itzuli duelako, baina literatur maisu batengana heltzeko *Gil Berak* euskaratu arte itxaron behar badu... Gaizki **irentsitako** irakurketa batzuk ditu, *Nietzsche* adibidez. Nik esango nioke *Cioran-i* irakurtzeko, *Ambroisse Bierce-ri*, *Thomas*

Berhar-i... heterodoxiara abiatzeko euskarriak izateko. Bere heterodoxia omen hori faltsoa iruditzen zait benetan. Emakumearen inguruan daukan kaka-nahastea salagarria da,

penagarria *Marasmus Femeninus* -ek jaso duen arreta hor dagoen ahalegin baleko bakarra literatur sena eta literatur hizkeran dagoelako.

Gerardo Markuletak Jon Iriberrri ezizenez argitaratu zuen bere lehen poema-liburua eta bigarrena ere halaxe joango da. Guk hemen bere poesia batzuk tartekatuko ditugu, orain arte argitaragabeak.

MUSAREN POEMA

*Bizitzen jakin
agureek musean dakiten eran.*

Musik ez

*Handira,
zaldiren bat ikusi eta nahiko;
errege bat somatu eta pozik.*

*Txikira
zuhurtziak dio:
«txikira jo, partida galdu»*

*Parerik ez,
eta jokua urri.*

AHOLKUA

*Hala baduk eta benetan
oherako keinu garbia egin badik,
amore emantzak,
ez hadi larritu,
eta soseguz
egizak bisita haren lurralde epelera.
Eskertu ezak ederraren
opari iheskorra.*

Eta ez hadi gero gizon portatu!

EUSKAL SEN.- Euskararekiko sena. Instinto o sentido del euskera.

HERREN.- Hankamotza, maingua. Cojo.

KUTUN.- Maitea, begikoa. Querido.

IRENTSI.- Tragar.

INGELESA NAGUSI BADA ERE, GALESERA BIZIRIK

2 Joan den ekainean Gales herrialdeko bisitariak izan **genituen gurean**. Lau irakasle eta hamar irakaslegai —bertako hizkuntzan irakatsiko dutenak— euskara **berreskuratze**ko pausuak ezagutzera etorri ziren. Unibertsitatea, unibertsitatera bitarteko hezkuntz sistema, komunikabideak —Egunkaria, ATB...— eta Helduen Irakaskuntza erakutsi zaizkie. Donostiako Urrats euskaltegian euskarazko lehen eskola ematen dieten bitartean, **talde-buruak**, Ina Williams-ek, beren hizkuntzaren egoeraren **berri eman** digu.

Ina Williamsek Walesko Unibertsitateko Hezkuntza Sailean lan egiten du. **OHO**ko irakasle-eskolen zuzendaria da. Urtero, ikasturtearen bukaeran, hizkuntza minorizatuak dituzten herrialdeetara **txangoak** antolatzen ditu. Hauxe du laugarrena. Ez da dhaztu behar Europan 40 milioi lagunek hitz egiten dutela hain **hedatuak** ez diren hizkuntzetan, eta Britainia Handian ere **ingelesaz gainera** badela besterik, galesera adibidez.

600.000 hiztun

Galesen hiru milioi lagun bizi dira gutxi gorabehera. Horietatik 600.000 lagunek dakite galesera, batez ere **landa** aldekoek. Hizkuntzaren **beherakada** ez da atzo goizekoa. Enrique VII.a Ingalaterrako erregetzara **iritsi zenez geroztik**, 1485.etik beraz, bertako nobleriak ingelesaren alde jokatu zuen. Dena den, XIX. mendera arte galestarrek **kementsu** eutsi zioten beren hizkuntzari. Joan den mendearen

erditik aurrera izandako inmigrazio handiek ekarri zuten **galerarik** handiena.

Galeseraz gazteek batez ere

HABE. - Landa aldean ari al da **suspertzen** galesera?

INA WILLIAMS. - Landa aldean eta industria **errotutako** inguruetan ere bai, hala nola Hegoaldean, Cardiff-en eta. Jendea hegoaldera etortzen ari da, eta eskolak badiutze han ere galesera ikasteko. Hegoaldean galesera ez da sekula indartsua izan, industria asko zegoelako. Azken hamar urteotan, ordea, jendea baserri aldetik hirietara joan da, eta horiek badakite galesera. Profesionalak dira, irakasleak, irratiko langileak, telebistakoak... eta umeak daukate. Presio-taldea sortu da horrela. Egia esan, ez dira asko **ikasgai** guztiak galeseraz erakusten dituzten eskolak, bigarren zikloan, adibidez, bost eskola daude hiriburuan, Cardiffen. Baina gero eta gehiago dira. Eta **arrakasta** handia izan dute. Galesera ez dakien jende askok bidaltzen ditu umeak eskola horietara, kalitate handikoak direlako.



Urrats euskaltegian euskarazko lehen eskola eman zieten galestarrei talde-buruak gurekin hitz egiten zuen bitartean.

GALESERA. - Galesko hizkuntza.
GENITUEN. - Orainaldian: ditugu.
GUREAN. - Gure artean. Entre nosotros.
BERRESKURATU. - Berriro eskuratu. Recuperar.
TALDE-BURU. - Jefe/a de grupo.
BERRI EMAN. - Adierazi, jakinarazi. Informar.
OHO. - EGB.
TXANGO. - Bidaia.

HEDATU. - Zabaldua, barreiatua. Extendido.
INGELESZ GAINERA. - Además del inglés.
HIZTUN. - Hablante.
LANDA. - Campo.
BEHERAKADA. - Descenso.
IRITSI ZENEZ GEROZTIK. - Desde que llegó.
KEMENTSU. - Indartsu, adoretzu.

GALERA. - Pérdida.
SUSPERTU. - Ernatu, azkartu. Avivar.
ERROTU. - Sustraitu. Enraizar.
IKASGAI. - Asignatura.
ARRAKASTA. - Éxito.

H.- Eta iparraldean ez al dago horrelakorik?

I.W.- Iparraldean ez dago «ikastolarik». Eskola **elebidunak**, berriz, bai. 1981.eko **erroldak** erakutsi zuenez, galesera dakien jende gazte gehiago dago zaharra baino. Eta hori hezkuntz sistemari esker gertatu da. Pozgarria da oso. Baina, bestalde, **kezkgarria** da galesera dakiten ume horiek etxeratzean **ez dutela galeseraz egiterik**, etxekoek ez dakitelako. New Port-eko eskola batean, adibidez, 250 umetatik 5ek bakarrik hitz egiten dute galeseraz etxean.

H.- Eta helduek ez al dute ikasten?

I.W.- Heldu asko ari da ikasten. Lan batzuetarako ere beharrezkoa da galesera jakitea, jendaurreko lanpostu batzuetarako. Baina ez askotarako.

H.- Nola **eratu** duzue helduen irakaskuntza?

I.W.- Gai horretan ez nago oso **jantzita**. Badaude gobernuak diruz lagundutako helduentzako eskolak. Eta unibertsitatean ere unibertsitatekoak ez direnentzako ikastaroak badira. Kultura, literatura, historia eta erakusten dute galeseraz.

H.- Galeserak ba al du tradizio idatzirik, literatura eta?

I.W.- **Jakina!** VI. mendetik aurrerakoa. Badira VI. mendeko **olerkiak**. Oso tradizio aberatsa du: olerkiak, musika, **elaberria**...

H.- Hain hizkuntza indartsua ondoan edukita, ingelesak **eragin** handia izango zuen galeseran, ezta?

I.W.- Berez ez du ingelesaren batere antzik. Ez dira **jatorri** berekoak. Sanskritoarekin du lotura. Baina jendearen hizkera kutsatu duela ezin ukatu. Wenglish esaten diogu **nahasketa** horri. (Galesera eta ingelesa nahastutako esaldi bat idatzi digu).



Ina Williams galesera erakusten.

Arrasatekoak harritu du

H.- Galeseraren egoerak ba al du euskararenarekin batere antzik?

I.W.- Bai. Gauza askotan berdintsu gabiltza: hezkuntz sistema, helduak ere ikasten ari direla... eta **baliabideetan** ere bai. Dena den, zuek autonomia handiagoa daukazue, diru gehiago eta baliabide gehiago.

H.- Gauza aipagarriarik ikusi al duzue hemen?

I.W.- Arrasateko bisita **aipatuko nuke** —Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearekin egonak dira—. **Lehentasuna** ez dago hizkuntzaren irakaskuntzan bakarrik. Jendearen **jarrerak** aldatzen saiatzen dira, eta zenbait proiekturi —bertako telebistari, aldizkariari eta— laguntza ematen diote.

Hizkuntzaren statusa udaletxeak onartzea...

Gu ere konturatzen gara hezkuntzan egindakoa **ezinbestekoa** dela, baina hori ez dela nahikoa. Eskolak **soilik** ez du gure hizkuntza berreskuratuko. Hizkuntzaren helburua aztertu behar da, gizartean duen eginkizuna. Gizartean errotu behar du, **aurrera egingo badu**.


Eskolak soilik ez du galesera berreskuratuko» (I.W.)

Ina Williams-en kideek bukatu dute euskarazko lehen eskola. Helduei euskara nola irakasten zaien jakiteko biderik zuzenena horixe: egun batez euskara ikastea. Inak, zoritxarrez, ez du horretarako aukerarik izan. Gure **jakinmina ase** du behintzat.

ELEBIDUN.- Bilingüe.
ERROLDA.- Censo.
KEZKGARRI.- Preocupante.
EZ DUTELA GALESERAZ EGITERIK.- Que no pueden hablar en galés.
HELDU.- Adulto/a.
ERATU.- Antolatu, tajutu. Organizar.
JANTZITA EGON.- Jakin. Estar capacitado/a.
JAKINA!- Noski! ¡Claro que sí!

OLERKI.- Poesía.
ELABERRI.- Nobela.
ERAGIN.- Influencia.
JATORRI.- Sorburua, iturburua. Origen.
NAHASKETA.- Mezcolanza.
BALIABIDEAK.- Eskuartekoak. Recursos.
AIPATUKO NUKE.- Mencionaría.
LEHENTASUN.- Preferencia.
JARRERA.- Portaera, jokaera.

EZINBESTEKO.- Derrigorrezkoa, behar-beharrezkoa.
SOILIK.- Bakarrik. Solamente.
JAKINMIN.- Jakingura. Curiosidad.
ASE.- Bete. Colmar.



EUROPAKO BATASUNAN MOTOZALEAK HASERRE

2 Moto indartsuak ez dituzte gogoko Europako Batasunako agintariek. Istripu asko sortzen dituztela diote. Horregatik aurtengo urtearen bukaeran arau berri bat jarriko da indarrean. Europako Batasunak ezin izango dira saldu 100 ZPtik gorako motoak. Hala ere, estatuek bost urtez 125 ZPtik beherako motoak onartzeko baimena dute. 1998an, motoen indarrak istripuekin duen lotura aztertuko dute berriz. Eta eragin zuzena ikusten badute, ez da salbuespenik izango.

BIHOTZAREN LANAK

2 Bihotzekoak jota hiltzen da jende asko. Ez da harrigarria! Badakizue nolako lana egiten duen organo honek? Ordu betean 300 litro odol zabaltzen ditu zainetan barrena. 70 urtetan, beraz, 184.000.000 litro odol. Ba al dakizue zenbat den hori? Ia 40.000 kupela —5.000 litrokoak— bete-beteak. Ez da ba nekatuko!



BIKOTEEN BANAKETA ETA DIBORTZIOTAN LISKARRIK EZ IZATEKO

2 Ezkontzeko pausuak erraz ematen dira. Banatu edo dibortziatu behar denean, berriz, oztopoa ugari. Eta bi ezkontideak bat ez datozenean, are okerrago. Auziak urte bete baino gehiago irauten du batzuetan, eta horrek badu eraginik dirutan ere, noski. Gurean ia bi dibortziotatik bat, %48a, zuzentzen da bide oker horretatik. Banaketa horiek errazteko, zerbitzu bat sortu da duela gutxi Bilbon. Ados Jarri du izena.

ZAHARRAK ETA GAZTEAK

2 Zaharrari botikak min egiten diola? Ez du hartuko eta kito. Urte gutxiago biziko da, baina tira! Gazteak, ordea, ba ote du horretarako eskubiderik? Estatu Batuetan gertatu da. Hamabost urteko mutiko bati bigarren aldiz aldatu diote gibela. Botika gogorak behar ditu besteren gibela onartzeko. Zoritxarrez, botika horiek direla eta, minez dago gaztetxoa. Botikarik ez hartzea erabaki du, eta gurasoek ere ontzat eman dute semearen erabakia. Osasun-arduradunek, ordea, ez dute inolaz ere horrelakorik nahi. Ospitalera eraman dute. Badakite han hartuko dituela. Ba ote dute horretarako eskubiderik?



MOTOZALE.- Motoa erabiltzen duena. Motorista.
GOGOKO IZAN.- Gustukoa izan, atsegin izan. Gustar.
DIOTE.- Esaten dute.
ARAU.- Erregela. Norma.
INDARREAN JARRI.- Poner en vigor.
ZP.- Zaldi-potentzia. Caballo de vapor.
ERAGIN ZUZENA.- Influencia directa.

SALBUESPEN.- Excepción.
BIHOTZETAKOAK JOTA.- Por infarto.
ZAIN.- Vena.
BARRENA.- Zehar, gaindi. A través de.
EZ DA BA NEKATUKO!- ¡Cómo no se va a cansar!
BANAKETA.- Separación.
LISKAR.- Sesioa, borroka.
OZTOPO.- Eragozpena, zailtasuna.
EZKONTIDE.- Cónyuge.
BAT EZ ETORRI.- Ados ez egon.

Estar en desacuerdo.
ARE OKERRAGO.- Peor todavía
AUZI.- Pleito.
OTE.- Zalantza adierazteko partikula.
GIBEL.- Hígado.
DIRELA ETA.- Baitira. A causa de.
ONTZAT EMAN.- Onartu. Aceptar.

GEHIAGO LUZATU

2 Garapen sozioekonomikoak, elikadura eta osasuna hobetzearekin, jendea garaiagoa izatea ekarri du mundu osoan. Halere, heredentzia genetikoak mugatuko du beti pertsonaren hazkundera.

Gizakia hiru garaitan hazten da:

- Umea izugarri haziko da amaren **sabelean** eta lehenbiziko hilabeteetan.

- Pubertaro bitartean ere hazi egingo da.

- Eta pubertaroan luzatu.

Zenbakitan, jaioberriak 50 bat zentimetro izaten ditu, lehenengo urtean 25 bat zentimetro haziko da eta bigarrenean, 12,5 zm. Hirugarren urtetik aurrera, urtean 5 edo 6 zentimetro hartuko ditu gorabehera handirik gabe. Pubertaroan **gizonezkoa** 15 eta

38 zm. bitartean haziko da eta emakumezkoa, berriz, 15-25 zm.

Garrantzizko zenbait alderdi

Umea taxuz haziko bada, beharrezkoa da alderdi batzuen **oreka**.

- HEREDENTZIA GENETIKOA. Jeneralean, gizakien aldea, luzeran, 25 zentimetrokoa da **bataz beste**. Dena den, anai-arreben artekoa ez da 16 zm.tik gorakoa izango eta **bikien** artean, aldiz, **aldea** ez da 1,6 zentimetro baino handiagoa izaten.

- ELIKADURA. Garbi dago **ezinbestekoa** dela behar bezala

jatea. Garatutako herrietan ez da elikadura-arazo handirik izaten, **salbuespen** batzuk izan ezik. Adibidez: **barazkijale zorrotzak**, argaltzeko erregimen **okerrek** sortutakoak, gaitz metabolikoak...

- ARAZO PSIKOSOZIALAK. Maitasunik eza oso kaltegarria izan liteke umearen garapenean. Frogatua dago, bestalde, gizartean **baztertuta egoteak** berak ere **sor ditzakeela arazoak** hazkunderan.

- HORMONAK. Hazkunderako **erabakiorrak**. Besteak beste, hazkunderako hormonak dauzkagu, eta somatomedina izenekoak. Baita, tiroideak, parthormonak eta D bitaminaren metabolitoak, estrogenoak eta androgenoak, kortisona, etab.

- GAITZ SENDAEZINAK. Esate baterako, diabetesa, asma kronikoa, **giltzurrun** edo gibealeko behin-betirako arazoak, etab.

- HIRIAK. Hirietako umeek baserrietakoek baino 2-5 zm. gehiago hartzen dituzte. Kaleko umeak hobeto jaten du, ariketa fisiko gutxiago egiten eta, bestalde, lehenago jasotzen ditu sexu-bizgarriak (kartelak, ikuskizunak, etab.).

- KLIMA. Udaberri eta udan hazkundera bizitu egiten da, udazken eta negu-partean, berriz, moteldu. Horretaz gain, herri epeletako umeek hanka luzeagoak izaten dituzte.



GARAPEN.- Hazkundera. Desarrollo, crecimiento.
ELIKADURA.- Alimentación.
OSASUNA HOBETZEAREKIN.- Con la mejora de la salud.
GARAI.- Luzea. Alto/a.
GIZAKI.- Ser humano.
SABEL.- Seno, vientre.
GIZONEZKO.- Gizasemea. Varón.
TAXUZ HAZIKO BADA.- Behar bezala hazteko. Para que crezca

como es debido.
OREKA.- Equilibrio.
BATAZ BESTE.- Batenaz beste, batekoz beste. De promedio.
BIKIAK.- Mellizos.
ALDE.- Desberdintasuna. Diferencia.
EZINBESTEKO.- Derrigorrezkoa, behar-beharrezkoa.
SALBUESPEN.- Excepción.
BARAZKIJALE.- Vegetariano/a.

ZORROTZ.- Estricto/a.
OKER.- Equivocado.
BAZTERTUTA EGOTEAK BERAK.- El mero hecho de estar arrinconado/a.
SOR DITZAKEELA ARAZOAK.- Que puede crear problemas.
ERABAKIOR.- Decisivo.
SENDAEZIN.- Sendatu ezin dena. Incurable.
GILTZURRUN.- Riñón.

HABE

euskara ikasten ari garenon aldizkaria

Helbide honetara bidali behar da:

HABE aldizkaria
Foruen Pasealekua, 1 - 1
20005 DONOSTIA

Izen-deiturak:

Kalea:

Zenbakia:

Probintzia:

HABE Aldizkaria jaso nahi dut etxean.

Honela ordainduko dut: Kontu korronte bidez (Urtean hamaika ale: 2.800 pezeta).

Hauxe da: Bankua edo Aurrezki-Kutxa

HABE Aldizkaria jaso nahi dut etxean.

Zenbakia:

BAI, ESAN

ERRIOXAKO HELDUAK
ERE EUSKARA IKASTEN

2 Aurtengo Araba Euskaraz egunean jende asko konturatu da badela Errioxan berreuskalduntzeko **saiorik**. Eta, zorionez, euskara ikasten ari direnak ez dira bertako umeak **soilik**, IKASTOLA 34. aldizkariko argazki-oinean zera **irakurri dugun arren**: «Arabar Errioxan 600 ikasle ari dira ikastoletan ikasten. Gurasoek ez dakite euskaraz». Helduek badakite umeek euskaraz egingo badute, beraiek ere ikasi beharko dutela. Asko dira, beraz, Errioxako IKA euskaltegietan ari direnak, **geroz eta gehiago**. Duela hamar urte ez ziren 100era iristen. Joan den ikasturtean, **berriz**, 173 hasi ziren, zazpi herritan **sakabanatuak**.

Oionen elkartu gara Andoni Landa euskaltegiko koordinatzailearekin. Euskaltegi berria jarri die Oiongo udalak. Dena den, oraindik **argirik ez duenez**, euskaltegi zaharrera eramán gaitu. Hura euskaltegia! Bospasei lagunentzako moduko ikasgela ikusi dugunean harritu egin gara. Baita azalpenak eskatu ere, jakina! Errioxako egoera oso berezia dela esan digu, oso herri txikiak baitira. Horrela, goiko urratsetan ezin jende askorik bildu. Eta gutxi direlako ikasteko aukerarik eman ez?...

Zazpi herritan

Hasi, duela hamabost urte hasi ziren Errioxako helduak euskalduntzen. Bostehun urte



Oiongo euskaltegi zaharra.
Honez gero berriag egongo dira.

ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

HELDU.- Adulto/a.

SAIO.- Ahalegina. Esfuerzo.

SOILIK.- Bakarrik. Solamente.

IRAKURRI DUGUN ARREN.- Nahiz eta guk irakurri. Aunque hemos leído.

GEROZ ETA GEHIAGO.- Cada vez más.

BERRIZ.- Ostera, aldiz. En cambio.

SAKABANATU.- Barreiatua. Esparcido.

ARGIRIK EZ DUENEZ.- Argirik ez baitu. Pues no tiene luz.

ERAGOZPENAK ERAGOZPEN.- Eragozpenak aparte. Dejando a un lado las dificultades.

HEDATU.- Zabaldtu. Extender.

LORTU.- Iritsi. Lograr.

ERROTU.- Sustraitu. Enraizar.

ESKUALDE.- Zona, comarca.

FROGATU.- Erakutsi. Demostrar.

AKUILU.- Agujijón.

badira gutxienez inguru honetan euskara galdua dela. Oion, Leza eta Urionan sortu ziren lehen taldeak inguruko ikastolen laguntzarekin. **Eragozpenak eragozpen**, —Errioxan euskara ikastea ez baita batere erraza— hamabost urte horietan eskolak 7 herritara **hedatzea lortu** dute: Oion, La Puebla de Labarka, Biasteri, Uriona, Samaniego, Bastida eta Nafarroako Biana. Nafarrekin batera ari dira lanean, nafarren egoera antzekoa delako. Guztira, 173 heldu aritu dira joan den ikasturtean euskara ikasten Errioxako IKAn.

Erdara hain **errotutako eskualde** honetan zerk bultzatzen du jendea euskara ikastera? Errioxa Euskal Herria dela **frogatzeko** bide bat da euskara ikastea. Baina bada bestelako **akuilurik** ere, ikastoletan dabilzan umeak. Seme-alabek euskara ikasi eta **erabiliko badute**, gurasoek ere ahalegina egin behar dute hizkuntza ikasten: «Umeari ulertu —Andoni Landa irakasleak—, eskolako gaietan laguntzeko **gai izan** eta umei euskara maite dutela adieraztea dira gurasoen **helburuak**. Horregatik, bostgarren urratsera arte etortzen dira asko. ETB ulertzen dute, umeek esandakoa ere bai eta piska bat hitz egiteko gai dira. Eta utzi egiten dute. Euskararen **jakinmina ase** dute piska bat».

6 irakasle bertakoak


Askok ikas-prozesua bukatzen ez dutenez, taldeak txikiagotu egiten dira. Horregatik, goiko urratsetan ikasleak hiru tokitan biltzen dituzte, Biasteri, Oion eta Biana. Eta horrek **oztopoak areagotu** egiten ditu: «Bastidako batek aurrera jo nahi badu egunero 70 kilometroko joan-etorria egin beharko du hona etortzeko», Andonik. Hala ere, **bada ondo ikasten duenik**. Euskaltegiatako hamar irakasleetatik sei errioxarrak dira, euskaltegian bertan ikasitakoak. Bertako irakasleak sortzeko apostu berezia egin dute betidanik. Izan ere, kanpokoak joan-etorrian ibiltzen dira. Urte

batzuk Errioxan lan egin eta etxera berriz.

Irakasle ez diren euskaldun berriak ere ugari dira. Errioxako ikastolekin batera Tfiki-Tfaka euskara **sustatzeko** elkarteak sortua dute, eta elkartearen lehenbiziko lanetako bat euskaldunen **errola** egitea izan zen. Ikastolan ari zirenak kontuan hartu gabe ehundik gora **atera omen ziren**. Eskualdean bederatzi mila **lagun** bizi dira. Euskaldun horietako asko euskaltegiak sortuak dira.

Bertako irakasleak sortzeko apostu berezia

Talde batzuen **ordutegi** eta **egutegiak** harritu egin gaituzte. Bi txandatan ibiltzen dira batez ere ikasleak, arratsaldeko 7etatik 9etara eta gaueko 9etatik 11etara. Biana, ordea, badute talde bat gaueko 10etatik 12etara! **Mahastietako** langileen **iharduera** dela eta, bestalde, egutegi **egokitutako talde bana** dituzte Biasteri, Samaniego eta Urionan. Bete beharreko ikastorduak honela betetzen dituzte. Irailean hasten dira eta urrian eskolak **eteten** dituzte, mahats-bilketa baitator. Azaroaren erdi-aldera, **sotoko** lanik handiena bukatutakoan, berriz ere euskaltegira udaberrira arte. Maiatzean, mahastietako lanak egin behar direnez, berriz eten, eta uztailean hilabeteko segida du ikastaroak. *Horrela dabilenak badu meriturik, gure artean.*



Andoni Landa, euskaltegiko koordinatzailea.

OHARRA

Joan zen Apirileko HABE Aldizkari honetan Emakunde Aldizkariako koordinazio-lanetan kolaboratzaile den Begoña Muruagak egindako deklarazioei buruz, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak zera adierazi nahi du: bertan esandakoak iritzirik pertsonalak kontsideratu behar direla, Emakundek, Itzulpen Zerbitzuko jendearen balio profesionalaren inguruan duen erizpidea oso altua baita. Are gehiago, azken urte hauetan gurekin izandako harremanen arabera, beti egiaztatu ahal izan dugu ez bakarrik bertako langileen kualifikazio eta efikazia, Emakunderen eguneroko zereginetan sortzen diren behar guztiei irtenbidea bilatzeko orduan bertako jendearen kolaborazio eta laguntza baizik. Beraz, leku hau bidez, deklarazio horiek sortu ahal izan duten ezinegonari aurre egin nahi diegu, gauzak bere tokian jarri.

EMAKUNDE

ERABILIKO BADUTE. - Para que puedan utilizar.

GAI IZAN. - Gauza edo kapaz izan.

HELBURU. - Xedea. Objetivo.

JAKINMIN. - Jakingura. Curiosidad, ganas de saber.

ASE. - Bete. Colmar.

OZTOPO. - Eragozpena, traba.

AREAGOTU. - Gehiagotu.

Aumentar.

BADA ONDO IKASTEN DUENIK. - Ya hay quien aprende bien.

SUSTATU. - Bultzatu. Animar, estimular.

ERROLDA. - Censo.

ATERA OMEN ZIREN. - Dicen que salieron.

LAGUN. - Biztanlea, bizilaguna. Habitante.

ORDUTEGI. - Horario.

EGUTEGI. - Calendario.

MAHASTI. - Viñedo.

IHARDUERA. - Lana. Trabajo, actividad.

EGOKITU. - Moldatu. Adaptar.

TALDE BANA. - Bakoitzak talde bat. Un grupo cada uno.

ETEN. - Interrumpir.

SOTO. - Bodega.

GURE ARTEAN. - Gure baitan, gurekiko. Para nuestros adentros.

CHARO ARRUTI: «Ileapaindegian barruak askatzen ditu jendeak»

2 Charo Arruti urruti heldu da. 13 urte bete ditu **ileapaingile**. 18 urterekin hasi zen. 1994eko *Gran Trofeo de Creación L'Oreal* irabazi du artista gazte honek La Cibelesen hirian. Espainiako mila lagunetik gora aritu ziren **lehian**, eta, azkenean, Charoren **sorkuntza-lan** batek jaso zuen saria. Irungo modelo baten buruan egindako orraztu bitxiak harrituta **laga** zituen epaileak. New Yorkera joango da sariari esker. Bitartean Basterretxearen «Bakearen Usoa» eskulturatik **hurren** duen ileapaindegian arituko da lanean. Aurten ez du oporrik.

HABE.- Saria aiatatu beharko dugu, lehendabizi.

CHARO ARRUTI.- Orijinaltasuna eta **gaurkotasuna** hartzen dute kontuan. Eta sortze-lana begibistakoa izatea. Lehendabizi argazkiak **igorri** behar dira. 50 lan aukeratzen dituzte. Ondoren Madrilera joan nintzen final-aurrekoak eta finala jokatzera. Final-aurreko nire modeloa ez zen profesionala, baina finalerako horixe eskatu zuten. Beste modelo bat behar nuen: **horaila**, ile motzekoa, pasarelan ibilia eta astia izango zuena, Madril 3 egun egoteko... Eta Amaia Gonzalez azaldu zen, Irungoa. Finalean ez nuen aurkeztu final-aurreko **orrazkera**.

H.- Beraz, modeloez ere izan dute zerikusia **arrakastan**.

C. A.- Handia. Gaur egun ia garrantzi handiagoa dute modeloez beraiek jantziak baino. Horregatik jantzen ditut apainduria handirik gabe, dotore baina neurrian. Beltzez batez ere, belarritakorik eta gabe. Ilea **nabarmen dadila**.

H.- Nolakoa zen zure sortze-lana?

C.A.- Ez da kalera joateko, ezta **ospakizunetarako** ere, pasarelarako da. Bi aldiz egin nuen. Behin epaileek epaia emateko, eta beste behin 2.000 ikusleek ikusteko... Ordu 1' erdi-bi ordu eduki behar du burua **lehorgailuan** modeloak. Hiru bat ordu behar dira orrazteko eta.

Aparte kolorea ematea eta makilaia. **Ilea harro** eraman behar da, ondo ikusteko moduan. Orrazkera **kizkur** askoduna zen, eta ez nuen batere **urkilarik** erabili eusteko. Ideia bidaia batean etorri zitzaidan gogora, Eskozian. Asko bidaiatzen dut lanerako. Azaroan berriz joango naiz Eskoziara.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

BARRUAK ASKATU.- Barrena hustu. Desahogar.

ILEAPAINDEGI.- Ilea apaintzeko lekua. Peluquería.

ILEAPAINGILE.- Ilea apaintzen duena. Peluquera/o.

LEHI.- Competencia.

SORKUNTZA-LAN.- Sortzeko lana. Trabajo de creación.

LAGA.- Utzi. Dejar.

HURREN.- Gertu, hurbil. Aurkakoa:

urruti.

GAURKOTASUN.- Actualidad, modernidad.

IGORRI.- Bidali.

HORAIL.- Ilhoria. Rubio/a.

ORRAZKERA.- Peinado.

ARRAKASTA.- Exitu.

NABARMEN DADILA.- Que se destaque.

OSPAKIZUN.- Celebración.

LEHORGAILU.- Secador.

ILE HARRO.- Voluminoso, ahuecado.

KIZKUR.- Rizo.

URKILA.- Horquilla.

H.- Zer ikasi duzu lehiaketa honetan?

C.A.- Ideia berriak ekarri ditut, zenbait jeneroren beste erabilera bat eta abar... Madriletik behera ilea apaintzen badakite, baina oso klasikoak dira **gure aldean**.

H.- Saria, aste beteko bidaia New Yorkera bi lagunentzat...

C.A.- Bai. Hango International Beauty Show-a ikustera joango gara. Oso ileapaingile onak aurkezten dira ikustaldi horretan, mundu guztikoak. Bestalde, 1995ean, L'Oreal etxearekin batera, ikustaldi bat egingo dut Iruñean. Beste bi ileapaingile ere joango dira, ni baino hobeak.

Ile motza nagusi

H.- Nondik nora doaz orrazkeraren joerak?

C.A.- Ile motza da **joera**, ez oso motza baina. **Garondoa** luze-antxean. Eta ile-motz hori kolorearekin. Kolore oso xuabeak, **horail nabarrak**, horailak...

H.- Horregatik aukeratu zenuen Amaia Gonzalez?

C.A.- Ile horaillean errazago ikusten dira kizkurak, urutiagotik, eta horregatik.

H.- Eta zu ile beltz luze-luzearekin!

C.A.- Ileapaingintzan hasi nintzenean, zer ez nion bota ileari! Modari segi eta modari segi. Eta badakizu, aspertu egin nintzen. Orain badakit nere irudia zein den, nere **nortasuna**. Gainera, modaren bidea ez da bakarra, joerak **ugaltu** egin dira.

H.- Eta zure **bezeroak** modaz moda saltoka al dabilta?

C.A.- Ez. Normalean badakite nondik jo. Lanbideak eragin handia du, arropak, eta bizimoduak ere bai, kirola egiteak... Horri guztiari erreparatzen diote ilea moztekoan.

Ilea zaintzea

H.- Berezko tintak ilea hondatzen al du?

C.A.- Ez. Horregatik amoniakoa eta oxidoa duten tintak baztertu egiten ditugu. Permanentterako **isurkiak**... Dena aldatzen ari da ilea ez hondatzeko.

H.- Udan gaude. Jendeak gehiago zaintzen al du ilea?

C.A.- Bai. Baina azala batez ere. Ilea zaintzeko oso garrantzizkoa da **elikadura** eta txanpu ona erabiltzea, eta txanpua ondo kentzea. Eta behar duenak **ukendu** hidratatzailea erabil dezala.

H.- Gizasemeek ilea zaintzen al dute?

C.A.- Askok. **Itxuragabekeria** erortzen ari dira. Eta ilea erortzen hasten zaienean, edo aitari, kezkatuago azaltzen dira. Oso sartua dago gizasemea ilearen kontu honetan... Normalean emakumeren batek esaten die etortzeko, hala ere: «Zergatik ez zoaz nire ileapaingilearengana?». Baina emakumeek ere galtzen dute ilea. Eta gaur egun gehiago: erre egiten dugu, lana, estresa... Baina **burusoiltzeari** ikerketa asko egin zaio. Hemendik gutxira ilea jartzea **hagina betetzea** bezala izango da.

Amaia Gonzalez modeloaren eraman zuen finalera»

H.- Eta **berritua** al da jendea?

C.A.- Gaur egun ez. Baina ileapaindegian barruak askatzen ditu: «Egidazu zerbait, senarrak ez dit begirik jartzen gainean eta, egidazu zerbait senargaiak utzi nau eta, edo **lur jota nago** eta...» Bezeroaren lagun bihurtzen gara neurri batean, baina auzokoaz **maxiatu** eta horrelakorik ez.

Akademiak

H.- Bezero asko joaten da akademietara ilea mozttera; merkeago da. Horrekin kezkatuta zaudete ileapaingileak?

C.A.- Akademiara doanak gurea ezin du ordaindu. Hori izango da kontua. Bestela **arriskugarria** da. Ilea ezin duzu edonoren esku utzi. Denok ikasi dugu akademietan, eta eskerrak jendea ilea mozttera joaten den. Baina askotxo joaten badira, presaka eta korrika moztuko diete. Arazo hori aldatu egin beharko da **agian**. Jeneroa bakarrik ordainarazten dutela, eta ez lana. Lana ere ordaintzen da. Ilea garbitu eta markatu, eta 700 pta. eskatzen diete; jeneroak ez du horrenbeste balio. Garrafoiko txanpua erabiltzen dute. Eta emakume-mordoa egunero. Guri ere antzeko zerbait gertatzen zitzagun akademian. Agian onena egunean ikasleko modelo bat hartzea izango da. **Auskalo**.



Orraztu sarrituan ez zuen urkilarik erabili.

GURE ALDEAN.- Gurekin alderatuta. En comparación de nosotros.

JOERA.- Tendencia.

GARONDO.- Buruaren atzeko alde. Nuca.

HORAIL NABAR.- Rubio oscuro.

NORTASUN.- Izakera.

Personalidad.

UGALDU.- Ugaritu, aniztu. Multiplicar.

BEZERO.- Parrokianoa. Cliente.

BEREZKO TINTA.- Tinte natural.

ISURKI.- Líquido.

ELIKADURA.- Alimentación.

UKENDU.- Crema.

GIZASEME.- Gizonezkoa. Varón.

ITXURAGABEKERIA.- Disparate, despropósito.

BURUSOILDU.- Quedarse calvo/a.

HAGINA BETE.- Empastar la muela.

BERRITSU.- Hitzjarria, hitzontzia.

Charlatán.

LUR JOTA EGON.- Estar hecho polvo.

MAXIATU.- Marmarrean ari, esamesaka ihardun. Murmurar, cotillear.

ARRISKUGARRI.- Arriskutsua. Peligroso.

AGIAN.- Beharbada. Tal vez.

AUSKALO.- Vete a saber.



TERMOA GARBITZEN

1 Ur beroa eta **garbikaria** ez dira **nahikoa**. Umeen biberioa garbitzeko eskubilaz **igurtzi** behar da barrutik. **Ez badaukazu**, sartu arroz-**aleak** xaboi eta urarekin batera. Termoa itxi eta ondo-ondo **astindu**. Termoa **erabili** ondoren, garbitu eta irekita utzi

ELTXOAK HELDU ONDOREN

2 **Eltxoek heldu** badizute, ez igurtzi minutako tokia. **Gaiztotu** egingo zaizu. Ur oxigenatuaz garbitu eta gero ur oxigenatuan bustitako gasa ipini gainetik. Ur oxigenaturik ez badaukazu, **ozpina** ere ona da. Goilarakada bat ozpin nahastu **baso bat uretan**. **Hazkurea** joaten ez bazaizu, **botikara** joan eta erosi xaboi berezia.



KOLONIA ARABARRA

2 Udan lore urdinez **janzten** dira Arabako **bazterrak**. **Esplikabelarrak** dira. Usain goxoko kolonia egiten da lore horiekin. Honelaxe: **lehortutako** lau goilarakada lore eta beste hainbeste alkohol nahastu. Ontzi itxian eduki aste betez. Azken egunean berotu eta **iragazi**.

ARRAINA ETA HARAGIA ELKARREKIN



2 Haragia eta arraina ezin direla nahastu? Hanburgesetan bai. Zergatik ez?

Osagaiak: 300 gramo **haragi xehetu**, 5 antxoa-zerra (**gazitutakoak**), arrautza, tipula, 4 goilarakada **ogi birrindu**, goilarakada 1 **ilar** (entsaladakoak), olio eta gatza.

Antxoa zatituak, haragia eta ilarrak nahastu. Arrautza erantsi eta eskuz **oretu** piska bat. Tipula xehetua **gorritu** ondoren beste osagaiekin batera jarri, eta segi lantzen. Lau pilota egin eta zapaldu —bi zentimetro lodikoak edo—. Gero, hanburgesak ogi birrindutan pasa eta sutara. **Su motel** samarrean frijitu. Bost minutu eduki alde bakoitzetik.

GARBIKARI.- Detergente.
NAHIKO.- Suficiente.
IGURTZI.- Restregar.
EZ BADAUKAZU.- Si no tienes.
ALE.- Garaua. Grano.
ASTINDU.- Sacudir.
ERABILI.- Usar.
JANTZI.- Vestir.
BAZTER.- Txokoa. Lugar, rincón.
ESPLIKABELAR.- Espliego, lavanda.

LEHORTU.- Ihartu. Secar, marchitar.
IRAGAZI.- Filtrar.
ELTXO.- Mosquito.
HELDU.- Picar.
GAIZTOTU.- Infectar.
OZPIN.- Vinagre.
BASO BAT URETAN.- En un vaso de agua.
HAZKURE.- Picor.
BOTIKA.- Farmacia.

HARAGI XEHETU.- Okela txikitua.
Carne picada.
ZERRA.- Filete.
GAZITU.- Salar.
OGI BIRRINDU.- Pan rallado.
ILAR.- Guisante.
ORETU.- Hacer una masa.
GORRITU.- Dorar.
SU MOTEL.- Su makala. Fuego lento.

Ima ez da jokabide hau duen bakarra

BIGARREN ESKUKO ALTZARIAK ETXEAN

3 Gurean etxeak **larrutik ordaintzen** ditugu; berdin dio berria izan edo bigarren eskukoa. Eta gero, batzuetan, etxea jantzi egin behar: komuna, logela, sukaldea... Eta berriro ere **sakelak astintzera**, **sekulako diru-jorra**. Baina badago, **merkezurrian** ibili gabe ere, merketik jotzen duenik. Zenbaitek uste du jokabide horrekin **bazter-lotsagarri dabilela**, eta ez du bere burua agerian utzi nahi. Ez dute horrelakoek Ima Puertas-en antzik. **Adeitasunez** erakutsi digu bere etxea, eta irakatsi, gainera, bizilekua bigarren eskuko tresnekin nola osatu.

Ezertan hasi baino lehen, Ima Puertas zergatik aukeratu dugun esan nahi dugu. Ima Puertas Emaustarra **baíta**, Emausek jasotzen dituen altzarien ardura daramana alegia, berarengana jo genuen erreportaia hau egiteko. Gure asmoa Emausko **bezero** batekin edo hitz egitea zen, bere etxean bigarren eskuko altzariak dituen norbaitekin. Imak izango genuen **bitartekaria**. Baina

ez zuen inor aurkitu guk nahi genuenerako. Batzuek etxea oraindik erabat jarri gabe zutela, beste batzuek obratan ari zirela, eta bazen, jakina, etxean bigarren eskuko altzariak duela aitortu nahi ez zuenik ere.

Iaz, Tecnitasa enpresak datu batzuk kaleratu zituen. Datu horiek Espainian metro karratua garestien non zegoen **adierazten**

zuten. Zazpigarren lekuan azaltzen zen Donostiako Antigua/Lorea. Baina Antiguan ere denetik dago. Gipuzkoako bigarren mendirik **garaienaren** izena duen kale **malkarraren** erdi-erdian dago Emausen altzaritegi-tako bat. Eta begira zer kontatu digun Imak: «Guk baditugu bezero batzuk erdi-erdi-erdi sartzan direnak; jende guztiak alde egin arte ez dira sartzan zer dagoen ikustera. Ez dute nahi inork jakin dezan bigarren eskuko altzariak nahi dituztela. **Era** askotako jendea dago, baina norbaiti altzaria edo arropa non erosi duen galdetzen badiozu, ez dizu erantzungo Emausen erosi duela, eliteko denda bat aitatuko dizu...» Azkenean, Ima bera aukeratu genuen.

Ima Puertas Emausko Trapuzaleen elkarteko **egoitzan** bizi izan da, baina orain bere etxe partikularrean bizi da. Zazpi hilabete behar izan ditu etxea apaintzeko, lehendik zeuden elektragailu batzuk gora-behera: «Hona etorri nintzenean, bi altzari horiek besterik ez nituen» esan digu egongelako bi armairu kristaldun seinalatuz: «Ikusten



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

Gela honetan egin dugu elkarrizketa. Goiko koadro bat kristalik gabe dago, eta horrexen zain dago Ima.

JOKABIDE.- Portaera. Postura, actitud.

ALTZARI.- Errediza. Mueble.

LARRUTIK ORDAINDU.- Oso garesti ordaindu. Pagar a precio de oro.

SAKELA.- Poltsikoa. Bolsillo.

ASTINDU.- Sacudir, menear.

SEKULAKO DIRU-JORRA.-

Izugarritzko diru-gastatzea.

Tremendo puerro.

MERKEZURRIAN.- En baratillo.

BAZTER-LOTSAGARRI IBILI.-

Ingurukoak lotsarazten ibili,

barregarri ibili.

ADEITASUN.- Adikortasuna.

Amabilidad.

BAITA.- Bait+da. Denez. Ya que es, pues es.

BEZERO.- Cliente.

BITARTEKARI.- Bitartekoa.

Intermediario.

ADIERAZI.- Aditzera eman, azaldu. Expresar.

GARAI.- Goia, goren. Alto.

MALKAR.- Aldapatsua, maldakua. Escarpado, pendiente.

ERA.- Mota, tankera. Estilo, clase.

EGOITZA.- Sede.

duzue kaxoietakoko helduleku guztiak ez direla berdin-berdinak. Baina egunen batean aldatuko ditut» **erantsi** du. Horrezaz gain, eserlekuak, liburuak, mahaiak, apalak, platerak eta abar Emausen erosi ditu, baita sukaldean dituen zenbait elektragailu ere. Adibidez, hozkailua eta garbigailua: «Elektragailuak **erruz** saltzen ditugu. Sua, 8.000 pezetatan, hozkailua 6.000tik 15.000 bitartean... Izan ere, jasotzen ditugun elektragailuak konpontzeko modukoak badira, guk geuk konpontzen ditugu. Lagun bat daukagu horretara bakarrik jarria».

Nondik datoz trasteak Emausera?

Ima Puerta auzo berri batean bizi da. Anoeta futbol-zelaitik **gertu**: «Jende askok bere kotxea erabiltzen du altzariak eta **garraiatzeko**. Ez dakizue ondo **nahi izatera** zenbat karga sartzen den kotxe batean! Baina, hala ere, harrigarria da zenbat kamioi dabilen auzo honetara mudantzak egiten. Badirudi jendea ez dela etxean bizitzen jartzen guzti-guztia osatu arte. Ni

ez naiz horrelakoa. Piskana-piskana jarri dut jarri beharrekoa, behar-beharrezkoena» adierazi digu. Baina bigarren eskuko jeneroa erabiltzeak ere behartu du piskana-piskana aritzera, ez da bakarrik filosofi kontua. Izan ere, beti ez da izaten eskura nahi den jeneroa. Adibidez, egongelako kurtinak. Denbora dezente itxaron behar izan du neurri-neurriko kurtinak lortu arte, ez luzeagoak ez motzagoak, Imak nahi zituen kolorekoak. Eta orain ere zain dago. Sofa batean eserita gaude, eta tapizeria **hondatuxea** duela esan digu, eta **jezarritakoan** gorputza «hondoratu» bezala egiten da, **bultzakiek** indarra pittin bat galdua dute eta. Sofa eta tresilo hobeago bat noiz izango dago. Bitartean, koloretako **estalki** polit bat jarri die. Baina benetan polita gela batean duen **aulki kulunkaria** da. Erosi zuenean, ez zuen kulunkarik egiten, baina **zurgin** baten laguntzarekin konpondu du arazo txiki hori: «Nik ez dut astirik gauza hauetan aritzeko: hiru-lau hilabetean hor egon da aulkia hondatuta, ez dut ikutu ere egin. Baina pazientziarekin **ekin** diot lanari, eta orain oso **atsegina** da hor esertzea... Asti-piskat duzunean

beste zerbaiti heltzen badiozu, ez dituzu lan hauek sekula amaitzen» azaldu digu ondo eginaren poza aurpegian.

Piskana-piskana jarri dut etxea»

Beste norbaitek ere hartu behar izan zuen astia ordenadorearen azpian dagoen mahaia egiteko. Mahai hau bulego batean jaso zuten; burdinazkoak ditu hankak, eta gaina **zurezkoa**. «Egin berritan gaina harrizkoa zuen, baina gurera **txiki-txiki eginda** iritsi zen harri hura. Haren ordeaz **ohola** — armairuen kolorearekin bat datorrena portzierto — jarri eta listo. Badaukat mahaia, nahi dudanean bertan lan egiteko, eta nahi dudanean egongelan **otorduak** egiteko» esan digu. Gela berean badu beste mahai bat ere, azpian kaxoiak dituen, berri-berria, baina akats txiki eta bakar batekin. Goiko kaxoia erdiraino besterik ezin da ireki, eta altzari-etxetik Emausera eraman zuten akats berbera zuten beste bostekin batera: «Zikin-zikina zegoen, eta garbitu egin behar izan dugu etxera ekarri aurretik. Aste bete darama mahai horrek hor. Orain arte, pasiloan dudana lorea zegoen. Beti bezala, duzun espazioarekin jokatu behar duzu. Nik ahal dudana guztia irakurri dut horretarako, dekoraziozko aldizkarietan eta... Aldizkariak ere bigarren eskukoak dira, noski, jendeak botatakoak» esan digu.

Elektragailuak erruz saltzen dituzte Emauskoek

Eta mahai-kontuetan jarraituz, Imak aditzera eman digunez, garai bateko egurrezko mahaiak, sukaldeetakoak, erdian **goilarak** gordetzeko kaxoiarekin eta, hankak erditik moztu eta egongelatan jartzen ari omen da jendea. Edo aspaldiko josteko makinaren armazoiak jateko



Adeitasunez erakutsi digu bere etxea Ima Puertasek.

ERANTSI. - Gehitu. Añadir.

ERRUZ. - Asko, gogotik.

GERTU. - Hurbil. Aurkakoa: Urruti.

GARRAIATU. - Karreatu. Transportar.

NAHI IZATERA. - Nahi baldin bada, nahi izanez gero.

HONDATUXEA. - Hondatu samarra. Bastante estropeado.

JEZARRI. - Eseri, jarri. Sentarse.

BULTZAKI. - Muelle.

ESTALKI. - Funda.

AULKI KULUNKARI. - Mecedora.

ZURGIN. - Arotza. Carpintero.

ASTI. - Denbora, beta.

EKIN. - Heldu. Acometer.

ATSEGIN. - Gustagarria. Agradable.

ZUR. - Egurra. Madera.

TXIKI-TXIKI EGIN. - Zati txikitik puskatu, txikitu, zeharo hautsi.

OHOL. - Tabla.

OTORDU. - Egunean zehar egin ohi den janaldi bakoitza.

GOILARA. - Cuchara.

mahai **bihurtzen** dute, gainean kristala pegatsita.

Gaizki ixten den kaxoia duen mahai horren gainean, paretean, liburutentzako lau apaltxo daude, **lauki** moduan, egurrezkoak, bata bestarengandik ez oso gertu, ez oso hurren, **eskegita**: «Ume-kozkor batek egin zituen. Gero ama semearen gela berritzen hasi zen eta ez zitzaizkion gustatu. Emausek jaso zituen». Emausek jaso da, baita ere, mahai horren ondoko alfombra; garbitu on bat besterik behar ez duen alfombra dezente askoak **arbuiazen** baitira: «**Bainontzian** uretan jarri, amoniako piskat bota eta listo. Baina jendea ez dago ohituta».

Astia izan behar

Imak abantaila dauka. Antiguari altzariak saltzen dituenari esaten dio: «Halako eta halako altzaria behar dut, zerbait iristen bada, mesedez deitu». Beraz, alde batetik, lehen eskuko informazioa du bigarren eskuko altzariez. Eta, bestetik, ez du hain sarri joan behar izaten zer dagoen ikustera. **Egingo genuke** Imaren etxea zazpi hilabetetan ezetz apaindu Emaustik kanpoko edozeinek. Hala ere, Imak aitortu digunez, berak nahiago zituen beste era bateko altzariak, zahar-itxura handiagokoak, «kuriosoagoak» bere hitzetan, baina horrelakoak **pipiak** nahiko **jota** ailegatzen omen dira, eta lan **nekeza** da horiek konpontzea. Nekeza bakarrik ez; hala esan digu bere etxerako altzariei pipia kentzen aritu izan den artista batek: «Altzaria berritzen pasatako denbora orduka salduko banu, ni aberats. Zuloz zulo sartu behar da botika xiringaz». Beraz, altzarien ederrari baino areago funtzionaltasunari erreparatu dio Imak.

Dekorazio-aldizkari asko irakurri du Imak

Eta altzarien zaharberritzeaz ari baikara, esan antigoaleko altzari-dendetan Emauseko jenero asko

dagoela. Kontuz ibili beharreko lekuak omen dira denda horiek: «Guk saldutako altzariak ikusi izan ditugu zenbait dendatan, eta Jaingoiko maitea, **harri eta zur geratzeko** modukoa da». Bitxikeria bat ere kontatu digu Imak, nola berak 5.000 pezetatan saldutako zeramika bat 30.000 pezetatan jarri zuen salgai erosleak bere dendan. Ez dakigu jokaera hauek **salbuespen** diren. Baina adibidetxoak hor daude.

Dirua aurrezten da

«Jakina, dirua aurreztu dut. **Beharko!** Emausen irabazten dugunarekin nik ezin dut etxea lehendabiziko eskuko jeneroarekin apaindu. Goi-goitik jota, 150.000 pezeta gastatuko nituen pisua jartzen».



Bi seme-alaba ditu Imak.


BIHURTU.- Bilakatu. Convertir.
LAUKI.- Cuadrado.
ESKEGI.- Zintzilikatu. Colgar.
ARBUIATU.- Baztertu, zapuztu, uko egin. Rechazar.
BAINONTZI.- Bañera.
ASTI.- Beta, denbora.
EGINGO GENUKE.- Apostaríamos.
PIPI.- Sitsa. Polilla.
JO.- Eraso egin. Atacar.

NEKEZ.- Zaila, gaitza. Aurkakoa: erraza, samurra.
XIRINGA.- Jeringa.
HARRI ETA ZUR GERATU.- Zur eta lur geratu, guztiz harrituta geratu.
SALBUESPEN.- Excepción.
AURREZTU.- Aurreratu. Ahorrar.
BEHARKO!- Ze erremedio! ¡Qué remedio!

GIZONAK ETA EMAKUMEAK PILOTALEKUAN


2 Azkueren Euskalerriaren Yakintza liburutik hartu dugu **pasarte bitxi** hau. Baztango **garai** bateko ohitura bat aitatzen du.

Pilotan jokatzen ari diren bitartean, pilota bat, **ikusle bat, gizonezkoa**, jo eta gero, lurrera badator, balio du, eta jokalaria **aitzina jarrai dezake**. Pilotak jo duena **emazte** bada, ordea, ez du balio, lurra jotzea bezala da. Eta honi alde hartan *Andrea* lur esaten zaio.



RODARIREN SORTA URDINA


2 Izen hori du Erein argitaletxearen sail berri batek. Haur-literatura sartuko dute **sorta** horretan. Lehen hiru liburuskak hauexek dira: *Aitatxo bilin-bolon*, *Hizketan bazekien katua eta Erregeak zergatik ote dira errege?* Hirurak Gianni Rodari idazle handiarenak. **Irudimen** handiko idazlea da Rodari, eta oso **aproposak** dira liburu hauek haurrentzat. Lehen liburuan ipuinak daude, bigarreanean **asmakizunak** eta hirugarrena *Zergatien liburua* da. Adibidez, zergatik dira erregeak errege? edo zergatik dira **pozoidunak** zenbait **suge**? edo zergatik eman **lustrea** oinetakoei? Eta abar.



625 MARRA EUSKARAZ ETA ERDARAZ

1 Irailean donostiarrek beren telebista izango dute, euskaraz eta erdaraz. TeleDonosti izango du izena, eta Zorroagan **egoitza**. TeleDonosti **ikusteko** antena bat jarri beharko da hara begira, eta seinalea **jasotzeko** amplifikadore bat. Seinalea hartzeko UHFko 67. kanala **piztu** beharko da.

Egunero bi orduz arituko da TeleDonosti.



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

HAMABI URTEREKIN SOLDADUZKARA?

2 Aspaldiko **berria** da. Leongo Ponferrada herrian, 1993-94 urteetan, Carlos F.G.-ri **bi aldiz** deitu diote udaletxetik. Hamabi urte ditu mutikoak. Soldaduzka egin behar duela esan diote.

Hemen ere, hainbeste objetore eta intsumisoekin, horrelako zerbait gertatuko da. Gaztetxoek joan beharko dute soldaduzkara. Edo zaharrak «reengantxatu». Izan ere, joateko edadean daudenek, ez dute, **zorionez**, ikusi ere egin nahi. Eta hau ere aspaldiko berria da.



PASARTE.- Pasaje
BITXI.- Deigarria, xelebrea.
GARAI.- Sasoia. Epoca.
IKUSLE.- Espectador.
GIZONEZKO.- Gizasemea. Varón.
AITZINA.- Aurrera. Adelante.
JARRAI DEZAKE.- Puede continuar.
EMAZTEKI.- Emakumea.
SORTA.- Bilduma, saila. Colección.

IRUDIMEN.- Imaginación.
APROPOS.- Egokia, ona.
Adecuado.
ASMAKIZUN.- Ikusi-makusia.
Adivinanza.
POZOIDUN.- Edentsua. Venenoso.
SUGE.- Culebra.
LUSTRE.- Betún.

BERRI.- Albistea. Noticia.
BI ALDIZ.- Bitan, bi bider.
ZORIONEZ.- Afortunadamente
EGOITZA.- Sede.
IKUSTEKO.- Para ver.
JASO.- Recibir.
PIZTU.- Encender.

EGUZKIAREN JIRA-BIRAK ETA ORDUA

2 Udaberrian, martxoaren 27an, ordu bete **aurrerat**u genuen **ordularia**, gaua 60 minututan laburtuz. Irailean berriro **egokitu** beharko dugu **ordutegia**. Arrazoa: ordu-aldaketaren bidez energia **aurrez**ten dugulako, kilowatio eta dirua franko, **nonbait**.

Antzinateko gizakia naturarekin bat egin zegoen: loa, jana, ehiza, etab. Baina, suak argia eta beroa eman zizkion neurrian eta nekazaritzan **aurrera egin ahalean** ere, naturaren martxari utzi eta berekasa hasi zen. Horretarako, egunaren eta gauaren mugak **gainditzeko**, **ezinbesteko** gertatu da denbora neurtzeko erlojua.

Ordu unibertsala

Betidanik egipziarrak eta saiatu izan dira eguzkiak **Lurrarekiko** duen lekua eta **denboraren joana** lotzen. Ideia honetan oinarrituz **banatu** da

Lurra atal berdinetan, meridio-**-lerrotan**, alegia. Beraz, neurri bereko hogeita lau ataletan zatituta dago Lurra; atal bakoitzak 15 gradu ditu ($15^\circ \times 24 = 360^\circ$); eguzkiak **denbora bera** behar du horietako bakoitza igarotzeko: ordu bete. Jira-bira osoa egiteko, 24 ordu.

Baina, herri batzuen eta besteen ordu desberdinak **batera ekartzeko**, erreferentziaren bat behar eta Greenwich hiri ingelesaren gainetik eguzkia pasatzen denekoa (eguerdiko 12ak han) hartu zuten horretarako. Eguna handik hamabi ordura hasiko da, hain zuzen eguzkia Greenwich-en


beste **muturrean** dagoenean. Horixe da ordu unibertsala, edo Greenwich-eko meridianoko ordua. **Eki**aldera, atal bakoitzeko ordua Greenwich-ekoa baino ordu bete gehiago da, eta, mendebalera atal bakoitzeko (15°) Greenwich-ekoa baino ordu bete gutxiago.

Aurrezten dena

Udako ordu-aldaketak lanegunaren hasiera **egunsentian** jartzea du helburu, egunaren argia erabiliz energia aurrezteko. Udan eguzkiak goizago argitzen duenez gero, **bidezkoena** ordua aurreratzea da eta **eguna argitzearekin** batera esna egotea.

Zer gertatzen da ordua aldatzearekin? Lo egiteko orduak egunetik gauera eramaten direla. Horrela, bada, energia aurrezten dugu. Nola eguna luzeagoa den udan, ez da ilunabarrean energia gehiago erretzen. Aldi berean, lanorduak arratsaldetik (bero handiagoa) goizera (freskoago) eramanez, bulegoetako aire egokitua aurrezten da.

Neguan ezin, ordea, udako ordutegiari eutsi, bestela gau ilunean **hasiko gin**ateke lanean. Horregatik atzeratzen da berriro erlojua. Beraz, neguko ordutegira itzultzean, lantokietan **argindarraren beharrik ez denez**, ordu beteko gastua aurrezten da. Etxeetan, berriz, ez dago gorabeherarik, neguan eguna motzagoa delako eta, dena dela, lanerako joan-etorria beti gaez egiten baita.



JIRA-BIRA.- Vuelta.
AURRERATU.- Adelantar, avanzar.
ORDULARI.- Erlojua.
EGOKITU.- Moldatu. Adaptar.
AURREZTU.- Aurreratu. Ahorrar.
ORDUTEGI.- Horario.
NONBAIT.- Dirudienez. Al parecer.
ANTZINATE.- Antigüedad.
AURRERA EGIN AHALEAN.- A medida que progresó
GAINDITU.- Garaitu, goitu. Superar.

LURRAREKIKO.- Con respecto a la Tierra.
EZINBESTEKO.- Beharrezkoa, derrigorrezkoa.
DENBORAREN JOANA.- Igaroaldia. Paso del tiempo.
BANATU.- Zatitu. Dividir, distribuir.
LERRO.- Marra. Línea.
DENBORA BERA.- El mismo tiempo.
BATERA EKARRI.- Bateratu. Unificar.
MUTUR.- Izkina, ertza, punta.

EKIALDE.- Sortaldea. Este.
EGUNSENTI.- Goiztiria, goiz-alba. El amanecer.
BIDEZKO.- Lógico.
EGUNA ARGITU.- Eguna zabaldu. Amanecer.
HASIKO GINATEKE.- Comenzaríamos.
ARGINDAR.- Elektrizitatea.
BEHARRIK EZ DENEZ.- Beharrik ez baitago. Pues no hay necesidad.



DENOK SUKALDARI

Pedro Subijana
Ikastolen Elkartea, Kilometroak 94,
ETB, 177 orr. 2950 pta.

3 Aldizkari honetako *Porrusaldaren* egileak ondotxo daki nolako lanak ematen dituen errezetak euskarara itzultzeak. Ikusi bezain laster esan zuen liburu hau behar zuela. Izan ere, eta sukaldari guztiek aitortzen dute, gure amonak dira euskal sukaldaritzaren **sustrai**a gorde dutenak, baina gezurra badirudi ere, **ondare** hori ia erdara hutsean kaleratu da sukaldarien eskutik eta. Oso jatetxe gutxitan, **salbuespen** txalogarri batzuk aparte, euskaratu dute menua, eta egin denean ere, ez oso txukun batzuetan. Liburu honek **lagunduko ahal du** hori zuzentzen! Itzuli HABEko Euskalduntze Saileko buruak itzuli du, Pello Esnalek. Baina onena euskaraz sortzea da.

Liburuak zazpi atal ditu, Jose Luis Galianaren argazki ederrez eta Pedro Subijanaren errezeta ederragoez **hornituak**. Bukaeran sukaldaritzaz-hiztegia dator. **On** egin!



JAINKO TXIKIA

Aitor Arana
Elkar, 116 orr. 800 pta.

3 Literatura-sariak jasotzen ohitua dagoen idazle esperantozale legazpiarrak idatzi du liburu hau. **Berez** ETBrako gidoiak ziren, baina azkenean liburu hau egiteko **moldatu** behar

izan ditu. Beraz, telesail baten antza badu liburuskak. Jainko Txikiak, Jainko Oso bihurtzeko, mundu berri bat sortu behar du, eta, mundu hori sortu ahal izateko, esperimendu batzuk egiten ditu. Horretarako mundu honetako bi biztanle hartuko ditu eta Historiaren zenbait **arotan kokatuko**: Inkisizioan, erromatarren garaian... Aro horiek osatzen dituzte liburuaren atalak. Abenturazko liburua dela esan liteke, eta haur-literaturaren alorrekoa. Hasierako gidoiak helduentzako ziren.

Azkenik esan beharrekoa da, Aitor Aranak **berriki** Atxagaren «Behi Euskaldun baten memoriak» itzuli duela esperantora.



GALIZIAKO HISTORIA

(Finisterreko Oroimena)
Xosé Estevez Gaiak, 256 orr., 1.350 pta.

3 Galiziarrei buruzko erreportaia egin genuenean hitz egin genuen Xosé Estevezekin. Han esandakoak eta askoz ere gauza gehiago idatzi ditu «euskaldun solidario eta Euskal Herrira emigratutako gailegoei» eskainita dagoen liburu honetan Paleolitikotik hasi eta Nazionalismo Galiziararaino. Historian Doktore da Xosé Estevez eta jakingo du zerbait bere herriaz. Eta euskaldunok jakitea ere txarra ez. Ez dira gaur goizean gurera etorriak galiziarak. Itzulpenaren arduraduna Iñaki Azkune da.



BAI MUNDO BERRIA

Aldoux Huxley
Elkar, 288 orr., 1.600 pta.

3 Behin telebista ikusten ari nintzela, zera esan zuen gizon batek: «Agian gizakiok Lur planetatik kanpo bizi diren izaki batzuen esperimendua besterik ez gara izango. Agian sortzetik beretik gaude programatuak, eta gure **garapena** aztertzen ari dira izaki horiek». Horrelakoak dira nobela honetako hiru pertsonaia-motak ere, programatuak; zoriona bera ere aldeaz aurretik ezarritako **patuaren esanera dago**. Liburuaren hasieran guztiak dirudi atsegin eta alegera, baina nobelak aurrera egin ahalean arantzak ateratzen zaizkio Mundu Berri horri. Izan ere, gizakiak, berak egin nahi du bidea, eta bide egiten ikusi bere burua. Agian horregatik aitatu dute liburu hau egunkari guztiek giza klonazioaren gaia pil-pilean egon denean. Beraz, idazle jaio zeneko ehungarren urteurrenean, esan daiteke gure mundu honek nondik joko zuen **taxuz antzean** asmatu zuela Huxleyk nobela honetan.

Liburu batek, sortu zen garaiaz kanpo, **egungotasunik** gaitzen ez badu, on den seinale edo on izateko bidean dagoela behintzat. Horixe gertatzen zaio liburu honi. Eta egungotasunaz ari garela, esan Xabier Amurizaren itzulpenaren egokitze eta gaurkotze-lana Joanes Urkixok egin duela.

Jon Zabalegi

SUSTRAI.- Zaina, erroa. Raíz.
ONDARE.- Gordailua. Tesoro.
SALBUESPEN.- Excepción.
LAGUNDUKO AHAL DU! - ¡Ojalá ayude!
HORNITU.- Dotado.
ON EGIN! - ¡Buen provecho!
BEREZ.- De suyo.
MOLDATU.- Egokitu, eratu.


KOKATU.- Lekutu. Ubicar.
ARO.- Garaia. Epoca.
BERRIKI.- Orain dela gutxi. Recientemente.

GARAPEN.- Desarrollo.
PATUAREN ESANERA EGON.- Halabehararren mende egon. Depender del destino.
TAXUZ ANTZEAN.- Aski ongi, ondo samar.
EGUNGOTASUN.- Gaurkotasuna. Actualidad.

RAMON ETXEZARRETA: «Unibertsitatean egin ninduan euskaltzale»

3 Urrestillarra, 1954.ean jaioa. Aurten, beraz, berrogei urtekoen belaunaldian **sartzerik badaukagu**. Etxe azpiko tabernan aurkitu dugu seme-alabekin garai bateko makina boladun horietako batean jolasean. **Nor bere garaiko jolasak erakusten saiatzen da gure artean**. Etxera igo, eta argazki-mordoska ikusi ondoren, hizketan hasi gara. Aita jaiotzez baserrikoa du, kalera ezkonduakoa. Fabrikan ez ezik bestelako langintzatan ere ibilitakoa, ilea eta bizarra mozten asteburuetan: «Larunbat arratsaldeetan hasi ordu batean eta gaueko ordu bata ordu biak arte igoal ilea mozten. Eta jaietan goizeko sei t'erdietan hasten huen mezetara zetorren jendeari bizarra kentzen. Taka-taka, taka-taka... eta ama **jostuna** huen. Neskei *corte y confección* erakusten ziean». Ramonek bere-berea duen **ilaia** tente hori —argazkian ikusten duzuenek, umetan ere horrelakoxea zuen— zeinek moztu bazuen etxean. Baita orain ere, anaiak aitaren bigarren **lanbide** horri eutsi baitio.

Lehenbiziko hamar urteak Urrestillan **eman** zituen kultura idatziaren **aztarrenik** ikusi gabe ia. Etxean ez omen zen liburutarako zaletasunik, zoritxarrez. Eta eskola ere ez zen tokirik **aproposena** zaletzeko: «Eskolan goiz partetik mutikoak ibiltzen gintuan, eta arratsalde partetik neskak. Larogei mutiko maisu bakarrekin, 7 urtetik 14era bitartekoak. Egurra partitzen zian maisuak! Artean baserrietan ez zegoan eskolarekiko halako **tira** handirik. Jendea 13 eta 14 urterekin irakurtzen ikasten igoal». Ramonek daukan **zirikatzaile-itzurarekin** umetan zintzoenetakoa ezin izan, gure artean. Ez bada! «Tonto erabatekoa ninduan, zintzo, gizajo horietakoa...».



«Amarekin Azpeitiko estudio batean edo».

Arratsaldeetan **jai izaki**, nahikoa **betarik** bazuten jolasteko, telebistarik ez baitzen **arte**. Herriska hartan zertan jolastu?: «Fruta harrapatzera baserrietara eta etxe jardindunetara, baina horretan ere **makala** izan: fruta gutxi harrapatu, eta koadrilan baten bat harrapatzen bazitean, ni harrapatu. Arrantzuan ere ibiltzen gintuan, baina horretan ere txarra. Eibartik etortzen hituan eskailu-janak egitera, Urrestillako mutikoei **milako bat** eman eta horrela... gero ezkutaketan, elkar harrapatzen, txabolak egiten eta ibiltzen gintuan».

Sermoilari

Hamar urterekin Xabierrera joan zen, jesuiten eskolara,

SARTZERIK BADAUKAGU.- Sar gaitzeko.
NOR.- Bakoitza. Cada uno/a
GARAI.- Sasoia, denbora.
JOSTUN.- Arropa josten duena. Costurera/o
ILAIA.- Ilajea. Cabellera, pelambrea.
LANBIDE.- Ogibidea, ofizioa.
EMAN.- Pasa, iragan.
AZTARREN.- Arrasfoa, zantzua.

Vestigio, huella.
APROPOS.- Egokia, ona.
TIRA.- Erakarpina. Atracción.
ZIRIKATZAILE.- Zirika(tu)+tzaile. Jendea zirikatzen aritzen dena. Provocador. Era berean: laguntzaile, aztertzaile, saltzaile...

JAI IZAKI.- Jai baitzen, jai zen eta.
BETA.- Astia, denbora.
ARTEAN.- Oraindik, orduan.
MAKAL.- Ahula, eskasa.
MILAKO BAT.- Mila pezetako papera.



Osaba eta aitonaren baserrian. Hango behorraren gainean ibiltzen gintuan ez zela eta ez ezer. Egun horretan, zakuarekin jaietako arropa ez zikintzeko».


batxilerra egitera. Etxean ez zen praile joateko ohiturarik. **Berezkoa** zuen praileenganako zaletasuna: «Ikargarri gustatzen zitzaidan praile izatea. Puf! Umetatik nire jolasik maiteena sermoia botatzea huen. Nazkatu egiten nizkian josten ikastera etorritakoak. *Sermoia bota behar dut, nik. Kanpora! Kanpora!*, haiek. Igo pulpitora eta sermoia botatzera! Meza laguntzen ibiltzen ninduan —argazkia ere badu horretan ari dela—. Jai-arratsalde askotan anaiarekin batera ematen nian meza etxean. Hura akolito eta ni apaiza, amaren kamisoiak jantzita». Dena den, praile izateko bidea ez zen uste bezain erraza. Xabierreko urte haiek gogoan, ez du **oroitzapen samur** askorik: «Oso gogorra! Ez huen niretzako bizimodurik aproposena. Atzera begira jarrita orduan baino gehiago sufritzen diat ordukoa gogoratuz. Han bertan egonda ohitu egiten haiz, baina. Egun guztia, goizeko zazpi t'erdietatik gaueko bederatzi t'erdia arte, den-dena saikaltuta». Txirrindua dena den, ez du ahazten, batxillerreko lehen ikasturtea **gainditutakoan** oparitu zioten

«Orbea **sastarra**». Ordurako txirrinduarien zaletzen hasia zen **nonbait**.

Batxilerra bukatuta, Donostiara doa unibertsitatera bitarteko ikasketak egitera. Orduan ere Urrestillatik kanpo bizi behar, izeba baten etxean. Eta ostiralero etxera Urolako trenean astebururako hamaika gauza egiteko asmotan. Oso **herrizuloa** izan dela aitortzen du, urtetan eta urtetan Donostian bizi izanda ere, ez duela bere burua donostiarzat hartu. Pasadizo bat kontatu digu: «Ni zortzi urtean Konstituzio Enparantzan bizi izan nauk, eta urte horietan Donostiako tanborrada ezagutu ez». Dena den, ez dio ondo **irizten** herrikoen jarrera horri: «Orain nahi nikek piska bat donostiaru. Donostiarrak donostiarrak izateagatik mespretxatzeko joera horren aldekoa ez nauk. Herrietatik etorri garenok nik uste diat dena oso gure alde eduki diagula. Nola euskaraz ondo hitz egiten genian, ez ikasi eta ez **landu**. Iruditzen zaidak berezko indijenatasun horri **etekina** atera diogula. Baina hori ez zegok ondo».

Euskara eta politika

EUTGko unibertsitatean filologia ikasten hasiko da eta



«Xabierreko barnetegian, lagun baten Zeus dotorearekin. Nere txirrindua ere eramaten nian, Orbea sastar bat».

bostgarren urtean «alferkeria hutsez» ikasketak utzi. Politika ezagutuko du urte horietan eta euskara maitatzen ere bai, Koldo Izagirreren laguntzarekin. Ramon euskalduna bazen ere, ez zen batere euskaltzalea: «Pertur sartu huen behin gelara eta Los




«Urrestillako ekipoa ateratzen genian bigarren edo hirugarren urtean. Bizikletaren gainean oso txarra ninduan».

ZELA. - Silla.
BEREZKO. - Jatorrizkoa, jaiotzekoa. Natural.
OROITZAPEN. - Oroitza+pen. Gomuta, gogorapena.
SAMUR. - Biguna, bera. Suave. Aurkakoa: gogorra, latza.
GAINDITU. - Garaitu, goitu. Superar, aprobar.

SASTAR. - Baldarra, korrientea. Torpe.
NONBAIT. - Dirudenez, antza denez.
HERRIZULO. - Herri+zulo. Herrian bizitzea oso gogoko duena. Era berean: etxezulo, amazulo...
IRITZI. - Iruditu. Parecer, opinar.
LANDU. - Jorratu. Cultivar, trabajar.
ETEKIN. - Mozkina, onura. Provecho.

*euskaldunes que estén dispuestos a dar clases de euskera que levanten el dedo. Nere artean, Euskarazko klaseak? Zertarako? Erotuta zeudek! Etxekoak ere ez hituan abertzaleak». Pentsakera aldatu zuen noizbait eta euskarazko eskolak ematen hasi EUTGko hizkuntz eskolan. Politikan lkasle Abertzaleen Mugimenduan **jantziko** da, EIA eta EEn sartu aurretik. Bitan izan da **zinegotzi** Azpeitiko udaletxean, eta hirugarrenean 16 botoen faltan kanpoan gelditu.*

Euskal lanetan «Hiztegi Erotikoa» du ezagunena. Euskarak ez duela barne-sentimenduak eta adierazteko balio? Hasi da euskal literatura idatzian **arakatzen**, bertsolariekin eskualdez eskualde elkartzen, eta liburu polita aterako du larogeigarren hamarkadaren hasieran. Hankamotz jaio bazen ere —emakumeen ikuspegia ez dela azaltzen salatu izan da, eta berak onartzen du kritika hori—, hamaika liburu idazten lagundu duela ezin ukatu. Bestalde, Castelao galizar **ospetsuaren** bi lan euskaratu ditu, haren hizkuntza ezagutu gabe itzuli ere: «Gailegoa leitzen ez duk oso zaila latin-piskat jakinda —Xabierreko urteak ez dira alferrikakoak izan—. Ondo moldatu nauk Castelaorekin. Gailegoen mundua oso erraz ekartzen duk




«Oh Euzkadi» aldizkarian idazten zuen garaian. Horren aurretik, «Zeruko Argia»n eman zituen argitara lehen idazlanak.

euskal mundura. Antzekoak direla esango nitek». Urte askoan horixe izan du ogibide, itzultzaile, Gipuzkoako Diputazioan bertako aldizkari ofiziala euskaratzen. Orain normalkuntz lanean ari da.

Jende askok, egunkarietan idazten dituen kolaborazio-lanetatik ezagutzen du Ramon. Etsaiak ere ugari bildu ditu urtetan

*Diario Vascon aritu ondoren. Orain Egunkarian ere ari da. Ez da eguraldiaz edo **barleko** telebistako saioaz idazten duen horietakoa, «politika aitzakia erraza duk» hamaika lerro idazteko, eta politikak, jakina denez, ezinikusi **galantak** sortzen ditu.*



Urolako trenaren aurrean. Asko zor dio Ramonek jada galdua den trenbide horri.



«Urrestillako Antxieta elkartean. Marino Lejarreta hiru edo lau aldiz joan huen. Egun horretan Marino, Gorospe eta Migel Mari Lasa gonbidatu genizkian». Ramonek Marinoren omenezko liburu bat idatzita dauka, «Hamalau ahaleginetako poza» izenekoa.

JANTZI.- Ikasi, trebatu. Instruirse.

ZINEGOTZI.- Concejal.

ARAKATU.- Miatu, aztertu. Escudriñar.

OSPETSU.- Famatua, sona handikoa.

BART.- Anoche.

GALANT.- Handia, gaitza.

LIBURU ELEKTRONIKOAREN TXANDA

2 Oraindik orain idazle askok zioten ez zutela ordenagailurik nahi. Gaur egun, ordea, gehienek **zokoratuta** daukate idazteko makina. Erabili duenak badaki informatika tresna ezin hobea dela. Teknologiak, ordea, haruntzago jo du. Irakurleari ere eskaini nahi dizkio informatikaren abantailak. Horretarako sortu da liburu elektronikoa. Testu idatziarekin batera, soinua eta **irudi bizidunak** eskaintzen ditu ordenadoreak. Informazioaren **egitura** ere ez da liburuarena bezalakoa. Irakurleak aukeratzen du nolako irakurketa egin nahi duen.

Aurtengo Frankfurt, Bologna eta Madrilgo liburu-azoketan garbi azaldu da liburu elektronikoa baduela zeresanik. Hasi, informatika eta elektronika-arloetako enpresak hasi ziren liburu bitxi hauek sortzen. Betiko argitaletxeek ez zuten bide horretatik aurrera egin nahi **inolaz ere**. Baina batzuk hasi dira konturatzen **aurrerapenei** gogor egiterik ez dagoela. Aurtengo argitaletxe askok beren lehen CD-ROMak —musika entzuteko CD-en antzekoak— aurkeztu dituzte: hizkuntzak ikastekoak, legeak eta biltzen dituztenak... eta

entziklopediak. Bilboko argitaletxe batek, DURVANEk hain zuzen, hamar liburuko entziklopedia era horretan kaleratu du, gaztelaniazko lehena. Euskarazko CD-ROM bat ere bada, «Ezagutu Gipuzkoa» izenekoa, ELHUYAR elkarteak Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz egindakoa.

«Ezagutu Gipuzkoa» CD-ROMa

Joan den udaberrian aurkeztu zuten ELHUYAREkoek euskarazko

lehen CD-ROMa. **Laster** —agian aldizkari hau argitaratzen denerako— Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean **ikustea izango da**. Gerora, beste zenbait kultur etxetara ere zabaltu nahi dute. Gipuzkoako kultura, turismo, geografia eta beste arlo batzuk jasota daude, entziklopedi itxuran **eratuak**. **Erabiltzaileak** kaldereroak zer diren jakin nahi duela? Pantailan azalduko zaizkio kaldereroen historia eta argazkia. Badu beste aukera bat ere, ordea: kaldereroen **doinu**-zati bat entzutekoa. Agian horixe da lehenbizi jendea harrituko duena. Baina hori ez da programa honen abantailarik handiena. Testuaren barruan **azpimarratutako** hitzak aukeratzen baditu informazio gehigarria azalduko zaio pantailan. **Eman dezagun** Gipuzkoako XIX. mendeko idazleen atalean gaudela. Zein **ote da Joan Bautista Agirre?** Saguaz klik egin, eta hantxe dauzkagu berehala pantailan Agirre Asteasuakoaren lanen **zerrenda** eta. Informatikarik gabe, Koldo Mitxelena liburutegiko literatur apaletara joan behar. Ez da, beraz, aurrerapen makala.

«Ezagutu Gipuzkoa» CD-ROMaren ondoren antzeko beste batzuk atera nahi dituzte ELHUYAREkoek (Ezagutu Araba, Ezagutu Bizkaia, Ezagutu Nafarroa...). Euskara informatikaren munduan



ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

ORAINDIK ORAIN. - Orain dela gutxi. Hace poco.
ZOKORATU. - Baztertu. Arrinconar.
IRUDI BIZIDUNAK. - Imágenes animadas.
EGITURA. - Estructura.
INOLAZ ERE. - Inondik inora ere. De ninguna manera.
AURRERAPEN. - Progreso.

LASTER. - Aurki. Dentro de poco.
AGIAN. - Beharbada. Tal vez.
IKUSTEA IZANGO DA. - Se podrá ver.
ERATU. - Antolatua, moldatua.
ERABILTZAILE. - Usuario.
DOINU. - Melodía.
AZPIMARRATU. - Subrayar.
EMAN DEZAGUN. - Demagun. Supongamos.
ZERRENDA. - Lista.

trebatzeko pausuak dira horiek. Gerora, EUSENOREK —ELHUYAR, UZEI, ELKAR eta Ikastolen Elkartek sortutako enpresa— badu informatikazko entziklopedia bat egiteko asmoa. Andoni Sagarna EUSENOREn buruak esan digunez, agian ez da CD-ROMean azalduko. Lan hori **burutzen denerako** CD-ROMa baino produktu aurreratuagoren bat izango da beharbada kalean.

Gaztelaniazko hiztegi entziklopedikoa

Bilboko Larreategi kalean dago DURVAN argitaletxearen **egoitza**. Harro-harro daude CD-ROM formatoan gaztelaniaz kaleratu den lehen hiztegi entziklopedikoa sortu dutelako. Aurtengo udaberrian aurkeztu dute produktu berria Madril eta Bartzelonako liburu-azoketan, baina ez dago **salgai**. Etxe horretako entziklopediak erostean oparitzen dute, «Horrela, erosleak liburuak etxean izango ditu, eta bulegoan CD-ROMa. Apaletan ez dio trabarik egingo», dio L. Portillok, argitaletxeko zuzendariak.

DURVAN CD-ROMak **iaz** hamar liburutan argitaratu zuten entziklopedia dauka jasota: 2.400 orrialde eta 100.000 sarrera guztira. Lehen konpaktoak ez dauka argazkirik —mapak bai—, baina udazkenean azalduko den **argitaraldian** 2.500 argazki sartuko dituzte, baita soinu batzuk eta irudi bizidunak ere.

Testu idatzia, soinua eta irudi bizidunak eskaintzen ditu

Pantailaren aurrean eseri gara. «Algodón» hitza bilatu nahi dugu eta, beraz, A-L-G-O-D-O-N idatzi dugu. Kotoiari buruzko lerro mordoska azaldu dira pantailan. Kotoiari buruz gehiago jakin nahi dugu, ordea. Entziklopedian «Algodón» hitza beste inon aipatzen den jakin nahi dugu. Baietz **adierazten** du ordenagailuak, 543 sarreratan



Disko txiki horretan dago hamar liburu horietako edukia. Horrelako beste hogeita hamar sartzeko arazo teknikorik ez dago.

azaldu dela, eta sarrera horien zerrenda azaltzen da pantailan. Zerrendako hitz bat aukeratu dugu «Afganistán». Hantxe azaldu da testua. Berehala aurkitu dugu «Algodón» hitza **lauki** baten barruan. **Benetan** harrigarria! Entziklopedia idatzian **ez dago horrelakorik egiterik**. Gehienez ere, bospasei sarreratan aurkituko dugu hitza **gaikako aurkibidean**.

Urtero eguneratu

CD-ROMak badu beste abantaila bat paperezko entziklopediekin **alderatuta**. Entziklopediak **hamar urtez behin** edo berridazten dira. Tarte horretan bi urtez behin edo ale gehigarriak argitaratzen dituzte. Informazio eguneratua **nahi izanez gero**, gehigarrian ere begiratu behar **nahitaez**. CD-ROMa, ordea, urtero eguneratzen da, lan osoa eguneratu ere. Horrexegatik errotzen ari da baliabide berri hau, besteak beste, zuzenbide, ekonomia eta medikuntzan.

Zergatik ez duten salgai jarri nahi galdetu diogu DURVANEko zuzendariari. L. Portillok erantzun digu ez dakitela oraindik salgai jarri ez jarri. Oraingoz CD-ROMak

irakurtzeko aparailu gutxiegi **omen** daude, publizitate-kanpainari ekiteko nahikoa ez, haren **ustez**. Eta kontuan hartzen ez genuen beste arazo bat ere ekarri digu gogora: «Zuk entziklopedia CD-ROMean saldu nahi diozu eroslegaiari. Disko txiki horrek 50.000 pezeta balio duela esango diozu, horren atzean lan handia eta teknologia dagoelako. Eroslegaiak **adarra jo** nahi diozula pentsatuko du. **Disko txiki horrek 50.000 pezeta?** Hamar liburuko entziklopedia saltzen badiozu, **ostera**, pozik».

Entziklopedia elektronikoan informazio gehigarria eskura

Erreportaia hau idatzi baino lehen CD-ROMean zeuden entziklopedia amerikar bat eta ingelesezko metodo bat ikusi nahi izan genituen. Ordenagailua **hondatua** zegoela esan ziguten. Hortaz, ezin aipatutako lan horiek erabili. Teknologiaren aurrerapenek erraztu egiten dute lana, baina ez beti.

TREBATU.- Gaitu. Capacitar.
BURUTZEN DENERAKO.- Para cuando se lleve a cabo.
EGOITZA.- Sede, casa.
HARRO-HARRO.- Oso pozik.
SALGAI.- A la venta.
IAZ.- Joan de urtean.
ARGITARALDI.- Edición.
ADIERAZI.- Aditza eman, azaldu. Dar a entender.
LAUKI.- Cuadro, cuadrado.

BENETAN.- Zinetan, egiatan. Realmente.
EZ DAGO HORRELAKORIK EGITERIK.- No se puede hacer eso.
GAIKAKO AURKIBIDE.- Índice de materias.
ALDERATU.- Erkatu, konparatu.
HAMAR URTEZ BEHIN.- Cada diez años.
NAHI IZANEZ GERO.- Nahi baldin

bada. Si se quiere.
NAHITAEZ.- Ezinbestean, derrigorrez.
OMEN.- Parece que, dicen que.
USTE.- Irizia, Opinión.
ADARRA JO.- Tomar el pelo.
OSTERA.- Berriz, aldiz. En cambio.
HONDATU.- Matxuratua. Averiado.

SOROZABALEN ARRASTO FINA

*Nere lanaren berri nahi nion
herriari erakutsi;
oraindainoko marka guztiak
zabor biltzaileak hautsi.
Haundia zera, baina
lanean, alajaina!,
bastante ardura gutxi;
nere eskultura ontzira eta
zakarrak lurrean utzi. (bis)*

3 1993ko Bertsolari Txapelketa Nagusiaren finalean bota zuen. Sorozabalek, Sebastian Lizaso lagun zuela «Iparragirreraren doinuan» egin zuen saioko lehenengoa da. Honela zioen gaiak: «Jokin, eskultorea; eta Sebastian, berriz, **zabor** biltzailea zarete. Jokin eskultoreak egin du bere eskultura; herriko plazan jarri du, denek goza dezaten. Sebastianek zaborren kamioira bota du».

Jokin Sorozabal Andoainen jaio zen 1967ko otsailaren 4ean. Ofizioz elektrizista dugu. Ez du sari handirik irabazi, baina **adituek** azkar **antzean** zioten mutil hark asko zezakeela. Bere armarik nagusia zorrotz erantzuten jakitea da. 1993ko Txapelketa Nagusia 5. geratu zen azkenean, baina ia-ia azken era arte oso aurrean ibili zen.

Bere lanaren berri herriari eman nahiz ipini du eskultura, baina zabor biltzaile **axolagabeak**, marka guztiak hautsiz, zaborren kamioira bota dio.

«Iparragirreraren doinua» 8ko nagusiaren bariantea da. **Aldea** honetan **datza**: erdian bi puntu motx ditu, eta ez dute **derrigor** zertan errimaturik beste laurekin. Hori bai, biek elkarrekin bai. Kasu honetan, beste lau errimak: *erakutsi*, *hautsi*, *gutxi* eta *utzi* diren bitartean, bi motxak: *baina* eta *alajaina!* dira. Errimak nahikoa onak dira. Neurri aldetik ondo planteatzen du, sinalefa eta guzti: *nere-eskultura*. «REES» silaba bakar batean ebakitzen du.

Bi parte bereziko genituzke. Lehenengoa, hasierako puntuak osatzen duena: *Nere lanaren berri nahi nion herriari erakutsi*. Beste guztia sartuko genuke bigarren partean: *oraindainoko marka guztiak zabor biltzaileak hautsi. Haundia zera, baina lanean, alajaina!*



ZABOR.- Zarama, hondakina, zakarra.

ADITU.- Jakituna. Especialista.

ANTZEMAN.- Igerri.

AXOLAGABE.- Zabarra, arduragabea.

ALDE.- Diferencia.

DATZA.- (ETZAN aditzaren indikatibo-forma).
Consiste.

DERRIGOR.- Ezinbestean, nahitanahiez.

bastante ardura gutxi; nere eskultura ontzira eta zakarrak lurrean utzi.

Errekurtso literarioz hitz egitea baino egokiago deritzot bertso-egikera honen **ezaugarriez** mintzatzea. Elipsi totala nabarmentzen da, bertso osoan zehar, goitik beheraino. Esate baterako, bertso horretan komunikatzen dena prosaz edo elkarrizketa normal baten bidez konunikatu behar izango bagenu, **honelatsu** egingo genuke (transkriba dezagun berriro, zerikusirik ez duten zatiak kenduta, noski): *Oraindaino marka guztiak hautsi ditu zabor biltzaileak. ...lanean, alajaina!, bastante ardura gutxi daukazu. Nere eskultura ontzira bota eta zakarrak lurrean utzi dituzu.*

ERAKUTSI (berri).- Ez dago hain ondo espresatua. Ondo bidez, «berri eman» esan beharko zukeen. Gertatzen da, ordea, errimatu ere egin egin behar izaten dela; horregatik sartzen du *erakutsi*. Bestalde, hiperbatoi bat ere antzeman daiteke. Berez: *Nere lanaren berri «erakutsi» nahi nion herriari*. Baina, ordena aldetik, dagoen bezala ere onargarria da. Hiperbatoia onartua dago bertsotan, baldin eta ulergarritasuna zeharo **oztopatzen** ez badu eta galdegaiarekin kontraesan handiegirik sortzen ez badu.

ORAINDAINOKO.- Orain arteko. Izenlaguna da. Adlatibo bukatua (noraino, noizaino?, zenbateraino, zertaraino...) + KO; belaunetarainoko elurra, gaurdainoko irabaziak, hiltzerainoko gorrotoa...

BILTZAILEAK.- Bil(du) + -TZAILE atzizkia. Aditzari eransten zaio. -LE atzizkiaren berdina da. -LE eransten zaie: a) -n bukaera dutenei. b) -i bukaera dutenei, baldin eta aditz-oina -r, -s, -a, -ts, -tz kontsonantez amaitzen bada.

ZERA.- Zara

ALAJAINA!.- Interjekzioa. Miresmena edo harridura adierazteko.

BASTANTE.- Nahikoa.

Ikus daitekeenez, bertso honek apainduria literario gutxi du. Baina arrazoiaren indar handia. Bertso klasikoaren eredueta bat duzue hau. Bertsoa, jokoa eta dialektika dela erakusten duena. Zorrotz **erasotzen** dio, laguna estu hartuz. Dena dela, Lizasok aurkitu dio irtenbiderik.

Rufino Iraola

EZAUGARRI.- Berezitasuna, adierazgarria.
HONELATSU.- Honela+tsu. Ia-ia honela. Era berean: berdintsu, halatsu, igoaltsu...
OZTOPATU.- Galerazi, eragotzi.
ERASO.- Jazarri. Atacar.

BESTEAK HOR KONPON?

2 Nork bereari eusten dio gizarte honetan. Indartsuenak aurrera; **makalenak**, berriz... Beste hainbeste gertatzen zaie bestelako animaliei ere. Dena den, oso jende gutxi aitortzen du horrelako **jokabiderik** daukanik. Ausartuko ote zara zeure burua aztertzeraz?

1.- Frutadendan.

- a) Dendariari uzten diot fruta aukeratzen.
- b) **Ukitutako alerik** ez emateko esaten diot beti.
- c) Neronek aukeratzen ditut alerik hoberenak fruta ukituz.

2.- Zine-aretoa **leporaino josita dago**. Hala ere, zure jarlekuaren ondoan bi toki daude hutsik. Pelikula ez da hasi oraindik.

- a) Erdian eseri naiz. Horrela, birentzako **tokirik ez dagoenez**, ez zait ondoan inor eseriko.
- b) Erdian eseri naiz, eta etorri direnei bi tokiak hartuta daudela esan diet. Gezurra, jakina!
- c) Berehala bete dira bi tokiak.

3.- Zer egiten duzu **beirazko** botilekin?

- a) **Zakarretara bota**. Etiketarik gertu ez dago beira biltzeko ontzirik.
- b) Beira-ontzietara eraman.

c) Zakarretara bota. Lana da etxe ondoko ontziraino eramatea.

4.- **Auzo** bati bidalitako eskutitza iritsi zaizu.

- a) Haren posta-kutxan sartu dut.
- b) Posta-kutxan ondoan utzi dut agerian.
- c) Zakarretara bota dut.

5.- Izebaren lantokian langile bat hartu nahi dute. Izeba zure alde egiteko prest dago.

- a) **Ea sartzen nauen!**
- b) Izebari eskerrak eman dizkiot, baina ez dut laguntzarik onartu.
- c) Oso ondo. Izebaren laguntzaz enpresan **gora egitea** ere **izango dut**.

6.- Etxera joan behar duzu zerbait jasotzera. Kotxea uzteko tokirik ez dago etxe aurrean.

- a) Bigarren **ilaran** utzi dut kotxea, atea itxi gabe, jakina!

b) Bigarren ilaran utzi dut atea ondo itxita, lapur asko dabil eta. Bide batez, telefono-dei batzuk egin ditut etxetik.

c) Ondoko kalean aurkitu dut kotxea uzteko tokia.

7.- Hondartza leporaino beteta dago.

- a) Bi toaila **zabaldut**, toki asko izateko.
- b) Buruaren ondoan utzi ditut **erantzitako** arropak. Horrela inguruko umeek ez didate aurpegira hondarrik botako.
- c) Arropak ere toailaren gainean utzi ditut. Pasabidea utzi behar zaie ingurukoei.

8.- Etxera sartzean **aldameneko agurea** datorrela konturatu zara. **Igogailuan** sartu zara.

- a) Zain egon naiz agurea iritsi arte.
- b) Bakar-bakarrik joan naiz gora.
- c) Bakarrik igo naiz. Gora iritsitakoan, igogailua behera bidali dut.

9.- Etxeko guztiok gosaltzeko esne gutxi samar dago.

- a) Besteetan baino esne gutxiago hartu dut.
- b) Kafetegira joan naiz gosaltzera.
- c) Beti bezala gosaltu dut. Bukatzen bada, kafetegira joango dira.

10.- Arropak busti samar atera dira **ikuzgailutik**. **Eskegi egin** nahi dituzu. Behean, ordean, arropa dago eskegita.

- a) Nik ere badaukat arropa zintzilikatzeko eskubidea, ezta?
- b) Itxoin egin dut, behekoak jaso arte.
- c) **Bihurritu** egin ditut jantziak, eta ura kenduta zintzilikatu.



NORK BEREARI EUTSI. - Mantener cada uno lo suyo.

MAKAL. - Ahula. Débil.

JOKABIDE. - Jokaera, portaera.

UKITU. - Hondatzen hasia. Tocado.

ALE. - Unidad (de fruta)

LEPORAINO JOSITA EGON. - Guztiz beteta egon.

TOKIRIK EZ DAGOENEZ. - Tokirik ez baitago. Puesto que no hay lugar.

BEIRA. - Vidrio.

ZAKARRETARA BOTA. - Echar a la basura.

AUZO. - Auzokoa. Vecino/a

EA SARTZEN NAUEN! - ¡A ver si me mete!

GORA EGITEA IZANGO DUT. - Podré ascender.

ILARA. - Errenkada. Fila.

ZABALDU. - Extender.

ERANTZI. - Desvestir.

ALDAMEN. - Alboa, ondoa.

AGURE. - Gizon edadetua, gizon zaharra.

IGOGAILU. - Ascensor.

IKUZGAILU. - Garbigailua.

Lavadora.

ESKEGI EGIN. - Zintzilikatu. Colgar, tender.

BIHURRITU. - Estrujar, retorcer.

Gurean bi mila erlezainetik gora daude DENBORAPASA GOZOA, BIZIBIDE ASTUNA

3 **Haurtzaroan** makina bat aldiz entzuna dugu ezti-saltzailearen ahotik «¡Miel de la Alcarria!» ezagun hura. Hainbestetan entzunda, ezia kanpoko jeneroa zela sinistu genuen. Eta, egia esan, urte haietan gurean **erlezaintzak** oso behera egin zuen. Gaur egun, ordea, geroz eta gehiago ari da **suspertzen**. Bizkaian, adibidez, ezia orain hamabi urte **halako hamar** jasoko dute aurtengo denboraldian. Euskal Herriko **ekoizpena**, bestalde, ez da 500.000 kilotik oso urruti ibiliko. Kalitateko Labela ere lortua dute zenbait erlezainek.


Artzentalesko udaletxearen aurrean elkartu gara Pedro Gallarretarekin. Erleetatik bizi den bakarretakoa da Pedro. Orain hamabost urte lantoki batean egiten zuen **behar**, baina besteren **morroi** izatea ez zuen gustokoa. Lantokia utzi eta bere kontura hasi zen lan egiten. Gaur egun berrehundik gora **erlauntza** ditu. Uztaiera arte Enkarterrietan eta Enkarterri inguruan izaten ditu. Gero, Burgos aldera jotzen du bigarren **eztialdiaren** bila.

Erlezaintza eta gerriko mina

Pedro gerriko minez dago. Egunotan ia 100 kutxa jaso behar izan ditu ezia biltzeko. Kutxa bakoitzak 20-30 kilo pisatzen ditu, «gerriko batere lan gozua ez». Turtziozetik gertu-gertu dauzka 120 erlauntza, eukaliptuz inguratuak. Mila eta berrehun kilo ezti bildu ditu hor, eta egunotan beste zortziehun bat jasotzea espero du. Eukaliptu-adarrez egina dauka erlauntzen **itxitura**, kaminotik urruti samar badaezpada ere. Sartu aurretik, buzo zuria, **eskularruak** eta buruko **babesgailu sareduna** jantzi behar

ditugula dio. Baina buzo zuriak laburregiak **izaki** gureztat eta buzo urdina jantzi behar gaitetik. Astakeria **galanta!** Erleek kolorezko jantzieta gehiago hurbiltzen baitira. Su-ontzia belar lehorrez bete eta su eman dio: «Babesteko

botatzen diegu kea. Geneetan dakarte **mezua**. Keak sua dagoela adierazten die. Eta sua denean, ezia jan behar dute, leporaino bete, eta ihes egin. Ezti beteta daudenean, ezin dute **eztena** sartu. Eta bestela ere atzera egiten dute,



Oiartzunen hamazazpi erlezain daude.

ARGAZKIAK: X. ELGEZABAL

ERLEZAIN. - Erle+zain. Apicultor/a. Era berean: abeltzain, artzain, behizain...

ASTUN. - Pisua. Aurkakoa: arina.

HAURTZARO. - Haurtza+aro. Haur-garai. Epoca de la infancia. Era berean: gaztaro, zahartzaro, helduaro...

ERLEZAINNTZA. - Erlezain+tza. Apicultura.

SUSPERTU. - Ernatu. Avivar.

HALAKO HAMAR. - Diez veces más.

EKOIZPEN. - Ekoiz(tu)+pen. Producción.

BEHAR. - Lana.

MORROI. - Criado, servidor.

ERLAUNTZA. - Colmena.

EZTIALDI. - Mielada, temporada de miel.

ITXITURA. - Hesia. Cercado.

ESKULARRU. - Guante.

BABESGAILU. - Babes+gailu.

Babesteko fresna. Protector.

SAREDUN. - Sarea duena. Dotado de red.

IZAKI. - Baitira. Pues son.

GALANT. - Gaitza, handia. Enorme.

MEZU. - Mensaje.

EZTEN. - Aguijón.

kea begietara iristen zaielako»,
Pedrok gu lasaitu nahian.

Mesede bat eskatu digu, bera
gerriko minez dagoenez, laguntzeko
hogeia kaxa furgonetara eramaten,
eta guk baietz. **LANBROA** ari du eta
fresko samar dago eguna. Eguraldi
honekin erleak urduriago egoten
dira, jan gutxiago daukatelako.
Sarrerako eukaliptus-adarrak
kendu ditu. Aurrean ditugu
erlauntz kaxak, bi ilara luze:
2.000.000 ezten inguru. Kaxaren
atzetik hurbiltzeko dio Pedrok,
erleentzako beheko **zirrikitura** kea
botatzen dien bitartean. Hala ere,
hegan hasi dira batzuk gure
inguruan. **Estalkia** kendu eta
goiko kaxa **libratu** du. Behekoan
daude erleak; goikoan, berriz,
ezti. Erleak aurreko egunetan
beheko kutxara jaitsi dira, eta
gero ezin gora igo. Horrela, ezti-
-kaxa garbi-garbi jaso daiteke,
erlerik gabe. EUP! Ez da
harritzekoa gerriko minez ibiltzea,
gure artean. Pedrok gupil
bakarreko txirrindu antzeko bat
atera du furgonetatik, eta haren
gainean erraz eraman du kutxa
barrura. Bigarren kaxa ere hantxe
da, eta hirugarrena ere bai...
baina erleak haserre dabilta
inguruan. «Zergatik? Ezagutzen ez
nautelako?». «Ni ere ez naute
ezagutzen. Udan hilabete-hogeia
egun bizi izaten dira. Ez dute
erlezaina ezagutzeko **astirik**. Buzo
urdinagatik izango da», Pedrok.

Eztena...

Halako batean buzoaren
barruan zerbait dabilen
errezeloa... Baietz dirudi! Galtza
barreneetatik bisitaria sartu da eta
ZAZTI!... AI!... Honek ez du nahikoa
ezti jan nonbait. **Egonezina**... Larri-
-larri barruko erleak eskuaz
zapaldu nahi, baina ezin. Beste
guztiak **aztoratu** besterik ez.

Aurten milioi-erdi kilo ezti hortxe-hortxe

«Goazen kanpora —Pedrok—.
Bizkor!». Handik atera eta hura
erleak ketu beharra. Su-ontziaren
hauspoari eragiten dio etengabe.

«Horixe da egin behar ez dena,
urduri eskuak astindu. Orduantxe
etortzen dira guztiak erasora». Handik piskatera, lasaitutakoan,
barrura oster, beste kaxa batzuk
jasotzera, aurrekoetatik urruti
samar, erleak lasai dabilzan
tokira badaezpada ere. Beste
pare bat kaxa eraman ditugu,
baina Pedro janzkera **aproposik**
gabe ibiltzerik ez dagoela
konturatu da. Ez diogu **askorik**
lagundu, **gure artean**. Erlezainen
jantzia erantzi gabe oraindik,
furgonetan sartu, eta kilometro
bat egin dugu aurrera. Erleetatik
urruti erantzi ditugu buruko
mozorroa eta. Buzoaren eta
galtzen artean erle bat azaldu da

hilik. Galtzen gainetik sartu nahi
izan du eztena. **Eskerrak!** Pedrok
aitortu digu hasieran askotan
heltzen ziotela. Behin buruko
sarean zirrikitu bat aurkitu eta
bospasei sartu zitzaizkiola. Begiak
ireki ezinik egon omen zen zenbait
hilabetez.

Datorren asteburuan, ezti
guztia bildutakoan, erle-kaxak
San Felices eta Brizuelara
eramango ditu. Horretarako mutil
batzuk hartu beharko dituela dio,
gerria erabat izorratuko ez badu.
Han **txilar**-loreetan ibiliko dira. Eta
txilar-eztia da errazen saltzen
dena. Eukaliptusarena ere ez
omen da zaila saltzen. Lore



Sua pizten. Keak babesten du erlezaina.

LANBRO.- Langarra, sirimiria.
ZIRRIKITU.- Zirritua. Rendija.
ESTALKI.- Tapa.
LIBRATU.- Askatu. Soltar.
BAKAR.- Bat bakarra. Unico.
ASTI.- Beta, denbora.
BARREN.- Beheko aldea. Parte inferior.
EGONEZIN.- Urduritasuna, artegatasuna. Nerviosismo.
AZTORATU.- Larritu, estutu.

BIZKOR! - Arin! Azkar! ¡Rápido!
HAUSPO.- Fuelle.
APROPOS.- Egokia. Adecuado.
GURE ARTEAN.- Gurekiko, gure baitan. Para nuestros adentros.
ESKERRAK! - ¡Menos mal!
HELDU.- Picar.
TXILAR.- Brezo.

EZ DAGO BIZITZERIK.- Ezin da bizi. No se puede vivir.
EGITEN DU.- Balio du.
KIDE.- Partaidea, sozioa.



Erleak lan eta lan.

askorena, ordea, ez du ikusi ere egin nahi, saltzen zaila delako: «Merkeago saltzen hasi behar, 400-500 pezetatatan, industriakoaren salneurrian. Eta horrela **ez dago bizitzarik**». Eztiak berez 1.000 pezeta **egiten** du. Mila pezetatatan saltzen da behintzat Kalitateko Labela duena. Batzuei garesti iruditzen zaie. Erlezainak, berriz, kexu dira urtetan igo ez delako.

Bizkaian 800 erlezain

Pedro Bizkaiko Eztikidetzak Elkarteko sortzaileetakoa da. 35 **kide** dira, Bizkaiko handienak. Bizkaian 800 erlezain inguru daude, gehienak erlauntza **banaka batzuk** dituztenak. Denborapasan aritzen dira gehienak, erleak beti toki berean edukiz. Elkarteko gehienek, berriz, bi eztialdi lortzen dituzte, Pedrok bezala, erleak batetik bestera eramanda. 35 horiek Bizkaian

ekoizten den eztiaren erdia biltzen dute, 60 tona inguru. Horren **hirutik bat** edo Kalitateko Labelapean saltzen du Gozo-Gozoa izen komertzialarekin. Labelak, ordea, baditu betebeharreko baldintzak. Elkartek Zallan du eztia **ontziratze**ko tailerra eta hantxe dago laborategia ere. Biologoak eztia aztertu egiten du Kalitateko Labela eman baino lehen. **Araudiak** dioenez, txilarraren etiketa ipintzeko, eztiak %45a baino gehiago txilar-polena behar du; eukaliptusarenak %80a baino gehiago eukaliptus-polena; eta, ez bata eta ez bestea denean, lore askorena dela jarri behar etiketan.

Jose Antonio Baños erandiotarrak Eztikidetzan lan egiten du. Zallako tailerrean aurkitu dugu lanean. Ezti-kaxak beteta jaso, makinaz —eskuekin ukitu gabe— **aberasketako** eztia

bildu, homogeneousatu eta ontziratatu egiten du. Gero, dendaz denda **banatzen du** Eztikidetzako eztia, batez ere Bizkaian. Jose Antonio bera ere erlezaina da. Duela hamar urte zaletu zen. Berrogeita hamarren bat erlauntza ditu Alonsotegi eta Barrikan **sakabanatuak**. Lana **erruz** egin behar dela dio. Ez dela txantxetako erlezaintzan aritzea, kutxak astunak direla. Pedorenak ikusi ondoren ezin ukatu arrazoi duela. Jose Antoniok, dena den, ez ditu kaxak tokiz aldatzen. Nahikoa du urtean eztialdi bakarra jasotzea: «Inoiz izan dut erlauntza gehiago jartzeko tentaziorik. Berrogeita hamarren **partez** ehun jarri. Baina ez dut arriskurik nahi. Ezti asko bilduta, agian merkeago saldu behar. Iaz jasotako guztia ez dugu saldu oraindik. Eta, egia esan, eztiak ez du diru askorik ematen, kiloko 600 pezeta edo».

Pedro erleetatik bizi den bakarretakoa da

Beste ekonomiako arlo askotan bezalaxe, eztia ekoiztea da errazena. Saltzea, edo merezi duen salneurrian saltzea, da lanik handiena. Erlezain askok dendetara eraman gabe saltzen dute, lagunei eta ezagunei zuzenean, edota azokaz azoka ibilita. Baina, krisiak bultzatuta edo, gero eta erlezain gehiago dagoenez, eskaintza salmenta baino handiagoa izateko arriskua dago. Aurten gurean ia milioi-erdi kilo ezti bilduz gero, behar bezala salduko ote dira? Edo industriako eztiaren prezioatara hurbildu beharko ote du hemengoak ere? Horixe da erlezain askoren kezka: «Kontsumoa ez doa gora. Beraz, gero eta **lehia** handiagoa geure artean».

BANAKA BATZUK. - Gutxi batzuk. Unos pocos.
EKOIZTU. - Producir.
HIRUTIK BAT. - Herena. Un tercio.
ONTZIRATU. - Ontzietan sartu. Envasar.
ARAUDI. - Normativa, reglamentación.
ABERASKA. - Panal de miel.

BANATU. - Partitu. Distribuir.
SAKABANATU. - Barreiatu. Dispersar.
ERRUZ. - Izugarri, asko.
PARTEZ. - Ordez. En lugar de.
LEHI. - Competencia.

HOGEITA HAMAR URTEREN BURUAN

3 Hogeita zazpi urte besterik ez zituen alargundu zenean. Ezkondu eta urte betera izan zuen senarrak **istripua**. Mendian, Ezkontzerakoan **hitz eman** zion hura izango zuela bere azken irteera. Berak bultzatu zuen **zin egitera**. Ez zuen bere burua beti etxean zain, beti beldurrez, beti noiz itzuliko itxaroten ikusi nahi, eta ezkontzeko baldintza hura besterik ez zion jarri: mendia uztekoa.

Baietz esan zion. Baina azkeneko espediziorako plan guztiak eginak zituztela, baimen guztiak eskuratuak, eta beranduegi zela atzera egiteko. Hori bai, **gailur** hura lortu bezain pronto, itzuli eta behin betirako bere ondoan geratuko zela, mendia oso maitea zuen arren, beste maitasun hura askoz ere sakonagoa zelako.

Sinetsi egin zion eta ezkondu egin ziren. Beldurrez agurtu zuen abiatu zirenean, bazekielako, sakon-sakonean, ez zuela halako afizio bat mugatzeko eta **debekatzeko** eskubiderik. Baina kontzientzia lasai zeukan. Azken finean, froga bat ezarri zion, eta bazekien, aurrerantzean, mendiaren falta somatzen zuenean, aitzakia bat edo beste tarteko, berriro ere mendaratzeko asmoak agertzen zituenean, ez ziola inolako eragozpenik jarriko. Gehiegi maite zuen.

Lehendabiziko berriak **pozgarriak** izan ziren. Uste baino lehen, uste baino azkarrago lortu zuten gailurra, bera buru. Argazki bakarra iritsi zitzaion eta, goitik behera estalita zegoen arren, **irribarre** hura **ikuste hutsak** dar-dar batean jarri zuen. Berriro ere lortua zuen bere ametsa.

Bueltakoan gertatu zen. **Ezustean elur-jauzi** batek harrapatu zuen parean eta berrehun metrotik gorako **amildegi** batera jauzi. Esan ziotenean, ez zuen malkorik isuri. Mendia zen maiteen zuena, eta hark irabazi zuen bien arteko borroka. Halaxe esan zioten **onik itzuli** ziren lagunak. Ahaleginak egin zituzten **gorpua** eskuratzeko, baina ez zen modurik izan.

Bajualdietan pentsatzen zuen, **oker ibil** zitezkeela, eta ez zela bere senarra amildu zena, espedizioko beste norbait baizik. Baina gertatu eta hogeita hamar urtera, sinestu beste erremediorik ez zuen izan.

Urte haiek guztiak, etxetik atera gabe egin zituen. Barren-barrenean bazekien ez zela itzuliko, baina ez zitzaion burutik kentzen, zitekeena zela hori ere, eta bueltatu eta etxean ez bazuen aurkitzen, betirako joango zela.



ISTRIPU.- Ezbeharra. Accidente.

HITZ EMAN.- Agindu. Aurkakoa: hitza jan.

ZIN EGIN.- Zinez hitz eman. Jurar.

GAILUR.- Tontorra, erpina, punta.

DEBEKATU.- Eragotzi, galarazi.

POZGARRI.- Poz(tu)+garri. Alaigarria. Era berean: penagarri, mingarri, beldurgarri...

IRRIBARRE.- Barremurria. Sonrisa.

IKUSTE HUTSAK.- Ikusteak bakarrik edo soilik.

Solamente el ver.

EZUSTE.- Ustegabea.

ELUR-JAUZI.- Alud, avalancha de nieve.

AMILDEGI.- Erroitzia. Precipicio.

ONIK ITZULI.- Regresar sanos y salvos.

GORPU.- Hilotza. Cadáver.

OKER IBILI.- Deskuidatu. Equivocarse.



Saiatu ziren maite zuten guztiek ideia txoro haiek burutik kentzen. Alferrik izan ziren **saio** guztiak. Gainera, hain tenple ona agertzen zuenez, **urteak pasa ahala**, lagunak kezka gutxituz joan ziren. Ez bazuen irten nahi, eskubide osoa zuen. Nahikoa edade bazuen bere buruarekin zer egin erabakitzeke. Inork ez zeukan **aholkuak** ematen hasi beharrik.

Konturatu gabe pasa zitzaizkion urteak. Elkarrekin egin zuten urte hartako egunak, banan-banan gogoratzen zituen. Mendiaz nola hitz egiten zion, zenbat zelo sentitu zituen, mendia hain maite zuela konturatu zenean, mendiak zer ematen zion, zer kentzen zion... denaz akordatzen zen. Berak gorroto zuen. Kendu besterik ez zion egin mendiak. Fotografiak ere moztu egin zituen. Denetan mendia kendu egin zuen, senarra bakarrik utziz. Haiei begira **orduak eginen** zituen.

Inori ez zion aitortu, baina bazuen itxaropen bat: egun batean aurkituko zuten.

Itxaropen haiek oso berandu bete ziren: hogeita hamar urteren buruan Japoniako espedizio batek, bide berri bat irekitzen ari zen bitartean, topo egin zuen gorpuarekin. Mutil gazte bat zen. Ez zuten arazorik izan identifikatzeko orduan, hil zen **garai** bezalakoxea zegoelako: gazte eta ederra.

Notizia gorpuarekin batera heldu zitzaion. Gogoratzen zuen bezalakoxea zegoen. Hileta handi bat egin zioten. Oso egun **hunkigarria** izan zen berarentzat. Ordutik aurrera, beltzez jantzita azaltzea erabaki zuen. Alarguna zen.

Unerik mingarriena haren gauzak **miatzerakoan** iritsi zitzaion. Hainbeste kuidoaz bien artean prestatutako motxila, aldatzeko eramandako arropa, kartera, beti zintziik eramaten zuen Arantzazuko Ama Birjinaren medaila, eta... inoiz ikusi ez zion kajatxo bat.

Kajaren barnean, emakume **ezezagun** baten argazkia, **eraztun** bat eta karta bat: «Maitea, nirekin batera eraman zaitut gailurreraino. Abiatzeko bezperan jaso nuen zure eraztuna. Nirekin egon da hau ere, mundua goitik behera ikusten. Bedeinkatuta dago orain, eta itzuli bezain pronto jarriko dut, merezi duen tokian. Zure behatzean. Abuztuaren 3an hor izatea espero dut. Emaldazu egun bat emaztearekin hitz egiteko. Nahikoa izango da. Bizitza guztia aurrean dugunez, egun baten gorabehera **jasango** dugu, ez? Maite zaitut» eta abar.

Iribarre egin zuen. Bera zegoen beltzez jantzita eta lehendabiziko aldiz begirada xamur bat bota zien etxeko leihotik ikusten zituen mendi-tontorrei.

Arantxa Iturbe

SAIO.- Ahalegina. Esfuerzo.

URTEAK PASA AHALA.- Urteak joan ahalean. Al paso de los años.

AHOLKU.- Gomendioa. Consejo.

ORDUAK EGIN.- Orduak igaro edo pasa.

GARAI.- Sasoia, denbora. Epoca.

HUNKIGARRI.- Erdiragarria. Emocionante.

MIATU.- Arakatu. Escudriñar.

EZEZAGUN.- Arrotza. Aurkakoa: ezaguna.

ERAZTUN.- Anillo.

JASAN.- Nozitu, pairatu. Soportar.

HITZ GEZIDUNAK

	*Izena	↓	Gaxteropodo maskor-bakarrak	↓	Suaren lagun	↓	Maitea kutuna	↓
	Bilatzea		Lanboro		Knock-out		Urraketa	
	→		↓		↓		↓	
	Mafiako buru	→				Lehena eta azkena	→	
	Izana					Erortzeko zorian		
	→				Erdi, hitz elkartean	→ ↓		
					Edaria harturik			
Kazetari	↓	Animalia artropodoa	↓	Krudela	→			
Berriz		Jainko egiptiarra		G. Bugno-ren autoan				
→		↓		↓		Dohainik, urririk	→	
						Zer		
Ordenagailu-en memoria mota	→			Bostehun	→	Ipar., esku-..., txaloa	→ ↓	
H ₂ O				Zintzo, ez gaizto		Ezabatua		
→		Jupitarren satelitea	→	↓	Ostatu mota	→ ↓		
		Azkena			*Deitura			Nahia, gu- ra, apeta, guztia
Izanen	→	↓		↓		Bizi erdian	→	Kontso- nantea
Musika nota								Josteko babesgarri
→		Roentgen	→	Erbioa	→	Ketan ipini, lehortu	→	↓
		Bokala		Kanpora joan		Borobila		
Mamu	→	M	A	M	A	R	R	O
Dago							Hegazkin konpainietan	→
→		Sarrera	→				Ipar., arreta	→ ↓
		Bokala					Bokala	
Kasik	→	↓	Bitamina mota	→	Jatorri atzikia	↓		Ez eme
Galdera-ezaugarria			Erresuma Batua		Kontsonante bikoitza			Kontsonante bikoitza
→		Ur bihurtu	→ ↓	↓			Hosto handi	↓
		Kontsonantea						
Arrainen azaleko plaka txikia	→	↓					100m ²	→

POEMA PRESOA

Zatika emandako erantzunak osatu ahala, eraman itzazu letra zenbakidunak beheko taulara –adibidean bezalaxe– eta Bitoriano Gandiaga poetaren olerki baten zenbait lerro aurkituko dituzu.

Gauza bat kolpez puskatan berezi

Inozo, ergel

Gutziz xehatua edo ehoa

Ugaztun haragijale handia

Besteen gainetik dago

Erraz irristatzen da

Amaren aita

Gandua

Eskastu, gutxitu

Han bertan

Aldaka gaineko aldea

Zikin, lohi, lizun

Igorri

Haitzuloa, leizea

Emakume gazteak

Zerbait gainean jarri, ezkutatu

Emailtza

Umea mundura ekarri


Laranja zati

Mozkorra

Mendekotasunik atera

H		U	T		I
	O	K			
H	A	U			
H	A	R			A
G	A	I	L		
L	A				N
A	I		O		
L	A	U	S	O	A
U					U
H			T	X	
	E	R	R		
L	I			T	
B		D	A		I
H	A	R			
			K	A	K
E	S				
D			A		N
E	R				
Z	I	Z			
H	O	R			A
	S		A	T	U

JEROGLIFIKOA



Kanta dezagun...! Aleluia!

LETRA-ZOPA

Aurki itzazu irudi hauei dagozkien hitzak. Ondo gogoan hartu norabide guztietan aurki daitezkeela.

A	L	E	M	D	T	S	A	K	E
H	I	U	S	A	R	E	R	A	Z
O	A	T	I	N	Z	O	D	L	P
N	O	Z	H	B	T	N	R	I	A
T	N	A	O	O	I	E	B	O	T
Z	I	R	F	R	A	I	D	E	A
A	M	E	R	K	K	T	O	K	A
R	I	I	U	R	R	A	Z	I	B
A	X	E	R	M	A	U	R	G	A
T	T	R	K	E	H	B	E	L	E

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20
S	A																		



INPERIO BRITAINIARRAREN AZKEN HARRIBITXIA

3 Aspaldi honetan Britainia Handiko zinema ez zebilen fin, ez **zegoen sasoian**. **Salbuespenak salbu**, jakina. Beti izan dira **irla** miragarri hartan jo eta fuego diharduten borrokalariak. Izenik? Hona hemen, jarraian, hiru **gerlarirenak**: Stephen Frears, Ken Loach eta Mike Leigh. Baina aspalditik ez zuen eskuratzen zinema britainiarrak «Cuatro bodas y un funeral»ek **lortu** zuena. Mundua aho zabalik utzi du. **Zor ta lor**. Barreari ezin eutsi. Algara batean. Min atsegin eta gozo batez.


Mundu osoaren lau izkinetan **hizbide** da «Four Weddings & a Funeral» **delakoa**. Ingalaterran zein Hong Kongen. Baionan eta Alemanian. Montrealen eta New Yorken. Planeta honetako biztanle guztiak gozo, **leun**, batere gogor egin gabe, jostari, pikaro erori dira Mike Newellek xuabe, maltzur, sendo, trinko zuzendutako komedia **berebiziko** honen besoetan.

Zer du ba gurekin jolas perilosoa dabilen **eromen** gustagarri honek? Ba, nahi duzuen guztia. Eskatzerik dagoen guzti-guztia. **Lehen eta behin**, atrebentzia. Gizarte, moral, zinema eta artearen arauak **pikutara bidaltzen** dituela alai, aise, damurik gabe.

Bigarrenik, bizitzeko eta zeluloideaz jolas egiteko egarri, **grina** ikaragarria. Hirugarrenik, **egun** dauden aktorerik jatorrenak, eta onenak.

Laugarrenik, gidoi betea, inolako **urraturik** ez duena. Txispaz idatzia dena. Boskarrenik... Kamara bihurri, gaizto xamarra...

Zer gehiago eska diezaiokegu bi ordu exkas irauten duen filme bati? Ba, egia esan behar badizuet... nahi dugun guztia. Esaterako...




Lau ezkontzetan izango gara, baina ez, ez gara ezkonduko.

HARRIBITXI.- Piedra preciosa.
SASOIAN EGON.- Indarrean egon, osasuntsu egon. Estar en forma.
SALBUESPENAK SALBU.- Salvando las excepciones.
IRLA.- Isla.
GERLARI.- Gudaria. Soldado.
LORTU.- Iritsi, erdietsi. Lograr.

ZOR TA LOR.- Erabat harrituta. De una pieza, de piedra.
HIZBIDE.- Hizketagaia, solasgaia. Tema o motivo de conversación.
DELAKOA.- El llamado, el susodicho.
LEUN.- Samurki, bigunki. Suavemente.
BEREBIZIKO.- Izugarria. Fenomenal.
EROMEN.- Zoramena. Locura.

LEHEN ETA BEHIN.- Antes que nada, en primer lugar.
PIKUTARA BIDALI.- Mandar a freir espárragos.
GRINA.- Joera edo zaletasun bizia. Pasión.
EGUN.- Gaur egun. Hoy día.
URRATU.- Rasguño.



Quatre mariages et un enterrement dans le sens des aiguilles d'une montre: "Les hommes préfèrent les blondes", "Le Parrain", "Le père de la mariée", "Voyage au bout de l'enfer" et "Les copains d'abord".

Hileta batean izango gara, baina ez, ez gara hilko.

...Graziaz beteriko 5 atal.

Jakina, 5 izan behar, ala oraindik ez diozue izenburuari erreparatu? «Four Weddings & a Funeral», «4 Marriage & 1 Enterrement», «Cuatro bodas y un funeral»... Beraz, «Lau ezkontza eta hileta bat». Eta pasarte bakoitzean, pasadizo xeble bat. Eta bost ospakizunetan, amodiozko hamaika joko maltzur. Eta hiletan inkluso, bizirik irauteko borroka zalapartari eta zauritua. Eta bost gertakizun horietan, gure **lagun min bilakatuko** zaizkigun pertsonaiak. Eta kontakizunen arteko zubi, maiteminez dagoen mutil guapo, dotore eta **prestua**. Bai, amodioak ikutua dago Hugh Grantek antzezteriko gaztea, baina, inork ez badu salbatzen, ez dagokion neskarekin ezkonduko da... Hori arriskua, hori pelikula eder honen **amu** urrezkoa!

Konplize erabiliko gaituzten gidoigile eta zuzendariak. Erraturik dagoela esango diogu behin eta berriro Charlesi. Andie MacDowellengana bultzatuko dugu. Alferrik, akaso? Ez, hori ez dizuet esango, baina bai «Four Weddings & a Funeral» honek normalean gertatzen diren «happy end» horietakorik ez duela aurreratzen ausartuko naiz.

... 11 Aktore sekulako

Filme hau sakon, bizi maite

duten lerro hauek irakurtzen dituzuen orduko, seguraski **karteldegian** izango da saio zeluloidezko hau pinpirin eta jakinduria arinaz **blai**. Hala baltz, utzi irakurtzeari eta zoazte takilara... Hamaika **antzezele** zoragarri izango duzue pantailan **zuen esanetara**, zuen gozamenerako lanean. Izenik jakin nahi? Hona hemen: Cary Grantekin jada konparatzen duten Hugh Grant, «Remando al viento», «Maurice» eta «Lo que queda del día»n ezagutzeko **parada** izan dugun gazte ahanzezina, hots, Andie Mac Dowell, Kristin Scott Thomas, Simon Callow, James Fleet, John Hannah, Charlotte Coleman, Corin Redgrave. Hortxe da ETBn deabrukeriatan ibilia den Rowan Atkinson... zera... «Mr Bean» maltzur eta **makur** hura.



Presaka ibiliko gara, baina bi ordur bizitzaren grazia dastatuko dugu.

... Hiru sortzaile miresgarri

Mike Newellen trebeziaren berri bagenuen joan den udan ikusi eta **dastatu** baikenuen «Un abril encantado» haren lan delikatua, baina «Cuatro bodas y un funeral» honek lagun berriak egiteko **proporzio paregabea** luzatzen digu. Ez ahaztu Richard Curtis gidoigilearekin. Erreparatu Michel Coulterrek sorturiko argiari eta egizue amets Richard R. Benneftek idatzitako musikaz.

Zatozte, zatozte lau ezkontza eta hileta pozgarri hauetara. Ez zarete damutuko. **Zin dagizuet.**

Begoña del Teso




Charles ezagutuko dugu sakon ezagutu ere, baina ez, ai pena! berak ez gaitu maitatuko Andierekin baitago maitemina.

LAGUN MIN.- Adiskide kuttuna. Amigo/a íntimo/a.
BILAKATU.- Bihurtu. Convertir.
PRESTU.- Noble, elegante.
AMU.- Anzuelo.
KARTELDEGI.- Kartel+degi. Cartelera. Era berean: arrandegi, liburutegi, okindegi...

BLAI.- Empapado.
ANTZEZLE.- Antzez(tu)+le. Actor. -LE atzizkiak egilea adierazten du. Esate baterako: ikusle, ikasle, idazle...
ZUEN ESANETARA.- A vuestra disposición.
PARADA.- Egokiera, aukera.


MAKUR.- Gaiztoa, maltzurra.
DASTATU.- Degustar.
PROPORTZIO.- Oportunidad.
PAREGABE.- Berdingabea. Incomparable, excepcional.
ZIN DAGIZUET.- Zin egiten dizuet. Os juro.



HILOBI.- Sepultura. Tumba.
ERAMAN.- Nozitu, jasan. Soportar.
UNE.- Momento.



LARRU.- Azala, Piel.
BIRIKA.- Pulmón.
FALTAN BILATU.- Mira egin. Echar en falta.





Pedro M.º Ramos Miguel

ZER ARRAIO GERTAZEN DA.- Ze demontre gertatzen da. Qué coño pasa.
EGITEN JARRAI DEZAGUN.- Para que sigamos haciendo.

JEROGLIFIKOA




Kanta dezagun...! Aleluia!

Denok batean



HITZ GEZIDUNAK

		*Izena	R	Gastropodo maizor- bakarrik Lanbeto	L	Suaren legon	K	Malta kutuna	L
		Bilakuz	B			Knock-out		Urriaketa	
		Mafako buru	C	A	P	O	Lehen aia sukerra Erretako sorian	E	A
		Izama	O	H	I	A	Erdi, hitu okartan Edaria lurturik	E	R
Kaualari	B	Animalia erregin-podoa	A	Krustela	A	N	K	E	R
Berriz	B	Jalko opijiarers	A	G. Bago- ren auzon	A	N	K	E	R
	B		E	R	I	R	O		A
Ordengabe en meioria mola	B		R	A	M		D		A
Il, O	B		R	A	M		D		A
	U	Jupitarren saietela	I	O		B	E	N	A
	U	Azkera	I	O		B	E	N	A
Izaonen	I		Z	A	N	G	O		I
Musika nota	I		Z	A	N	G	O		I
	R	Roenign	E	R		E	R		O
	R	Bekala	E	R		E	R		O
Mamu	M		A	M	A	R		A	I
Dago	D	Sarrera	A	T	E	A		A	R
	D	Bekala	A	T	E	A		A	R
Kastik	I		A	E	T	A		A	R
Gaidera- ezagarrta	I	Bilamisa nota	A	E	T	A		A	R
	A	Errosuma Balun	A	E	T	A		A	R
	A	Ur bihurtu	U	R	T			O	R
	A	Kontse- nantes	U	R	T			O	R
Arrainen azaleko plaka tsikia	E		Z	K	A	T	A		A
	E		Z	K	A	T	A		A

TESTA

1. a) 1 b) 2 c) 3
2. a) 2 b) 3 c) 1
3. a) 2 b) 1 c) 3
4. a) 1 b) 2 c) 3
5. a) 2 b) 1 c) 3
6. a) 2 b) 3 c) 1
7. a) 3 b) 2 c) 1
8. a) 1 b) 3 c) 2
9. a) 2 b) 1 c) 3
10. a) 3 b) 1 c) 1

25 PUNTUTIK GORA

Basapiztia halakoa! Bost axola zuri besteak. Ez ote zara seme-alaba bakarra izango? Zorionez, zuri ere iritsiko zaizu zeure **pozoi** horretatik edateko txanda. Orduantxe aldatuko zara agian.

18 PUNTUTIK 25 PUNTURA

Buruak baietz **dio**, ez garela bakarka bizi, bihotzak ere beste hainbeste. Dena den, hamaika kontraesanez beteta zaude. **Zenbaitetan** gizartearen bultzadak **noraezean eramaten** zaitu, baita zure pentsakera eta sentikerearen kontra eraman ere.

18 PUNTUTIK BEHERA

Pozik zaude zeure buruarekin eta ingurukoekin. Dena den, batzuetan n portaera ikusita zalantzak izaten «*Ez ote naiz tontoarena egiten ari?*», **ak zalantza** ondo **errotuta** dituzu horiek. Ez zara hain erraz aldatuko.

POEMA PRESOA (Bitoriano Gandiaga)

Asko lotsatzen bait nau
sarritan egiak,
isilpean estali
ohi ditut erdiak

LETRA-ZOPA

A 10x10 word search grid with the following words highlighted in black outlines:

- Horizontal Words:**
 - SARE (Row 2, Columns 4-7)
 - FRAID (Row 5, Columns 3-7)
 - RAZI (Row 7, Columns 5-8)
 - BEL (Row 9, Columns 6-8)
- Vertical Words:**
 - HUI (Row 1, Columns 1-3)
 - OAT (Row 2, Columns 1-3)
 - NOZ (Row 3, Columns 1-3)
 - TNA (Row 4, Columns 1-3)
 - ZIR (Row 5, Columns 1-3)
 - AMER (Row 6, Columns 1-4)
 - RII (Row 7, Columns 1-3)
 - AXE (Row 8, Columns 1-3)
 - TTR (Row 9, Columns 1-3)
- Diagonal Words:**
 - ZOD (Row 2, Column 5 to Row 3, Column 7)
 - NRI (Row 3, Column 5 to Row 4, Column 7)
 - OIE (Row 4, Column 5 to Row 5, Column 7)
 - BOT (Row 5, Column 5 to Row 6, Column 7)
 - KTK (Row 6, Column 5 to Row 7, Column 7)
 - RAZ (Row 7, Column 5 to Row 8, Column 7)
 - URG (Row 8, Column 5 to Row 9, Column 7)
 - BELE (Row 9, Column 5 to Row 10, Column 9)

SOLUZIOAK: Txirrinda, Danbor, Sare, Bizar, Bele, Harkaitz, Tximino, Ezpata, Fraide, Hontza

BASAPIZITIA HALAKOA!.- Basapizitia alena! ¡Bestia salvaje!.

BOST AXOLA ZURI.- Te importa un pimiento.

POZOI.- Edena. Veneno.
DIO.- Esaten du.
ZENBAITETAN.- Batzuetan. A veces.
NORAEZEAN ERAMAN.- Llevar sin rumbo.

ZALANTZAK ZALANTZA.- Zalantzak aparte. Dejando a un lado las dudas.
ERROTU - Sustraitu. Enraizar.

2

ARIES

Martxoaren 21etik Apirilaren 20ra

Urliak zera bat eskainiko dizu, zeratzeko. Esker onik agertzen ez badiozu, zeratu egingo zaitu.

Adiskidetu egin behar duzue.

Tokitan bizi da. Haraino iritsi behar duzu oinez, zeraren zerarekin hitz egiteko.

TAURUS

Apirilaren 21etik Maiatzaren 20ra

Debekatu egin behar diozu zeure buruari itsasora irtetea. Aukera paregabeak izango dituzu, gogo izugarriak, baina arriskutan zaude. Uretatik ihes egin. Onena, hiru egun pasatzea, **baraurik**, desertuan.

GEMINI

Maiatzaren 21etik Ekainaren 21era

Istripu-arrisku larria. Txakur-kaka guztietan irristatuko zara. Ez atera etxetik inolaz ere. Ez mugitu besaulkitik edo ohetik, astelehen eta asteartean. Gaisorik zaudela esan. Alkateari gutunak idatzi.

CANCER

Ekainaren 22tik Uztailaren 22ra

Zure mailako Aries bat bilatu.

Lagunduiozu bere horoskopoa ulertzen. **Biziki** eskertuko dizu. Betirako adiskidetasunaren atarian zaudete. Kolorea, arrosa. Zenbakia, 9. Aldatu zeure **lurrinaren** marka.

LEO

Uztailaren 23tik Abuztuaren 23ra

Bazkaltzera konbidatu zaitu, baina ez zutaz maitemindu delako. Ez al duzu ikusten pena ematen diozula? **Behar gorrian** zaudela uste du jende guztiak. Orraztu, txukundu, lo pixkat egin, jan. Eta utzi harrokeriak!

VIRGO

Abuztuaren 24tik Irailaren 23ra

Edadearekin kezkatzen hasita ez zoaz inora. Horixe duzu, hain zuzen, zahartzaroaren seinalea. Nolako hiletak nahi dituzun esaten hasita, **ahaideak** nazkatu egingo dituzu. Opor luzeak behar dituzu.

LIBRA

Irailaren 24etik Urriaren 23ra

Ileapaindegian, liftingetan, gimnasioan eta antzekotan diru gehiegi gastatzen duzu. Agian, ez dizu merezi. Ingurukoen iritzia eskatu beharko duzu. Trago txarra izango da, baina, luzera begira, **onuragarria**.

SCORPIO

Urriaren 24etik Azaroaren 22ra

Zuretzat udaberria da. **Lilura** batean bizi zara, guztiak bost axola dizu, irribarrez jaikitzen zara ohetik. Zure sekretua dela uste duzu, baina denek dakite maitemindu egin zarela. Baita zure seme-alabek ere.

SAGITARIUS

Azaroaren 23tik Abenduaren 21era

Kartak erosi behar dituzu gaur bertan. Musean egin gaur gauean, dirua jokatzuz. Jokoa dena ongi aterako zaizu. Aberastu egingo zara. Amodioan, dena gaizki. Ez duzu jakingo norekin gastatu. **Koittaua!**

CAPRICORN

Abenduaren 22tik Urtarrilaren 20ra

«Libra» batek bere itxura fisikoari buruz galdetuko dizu. Beldurra emango dizu egia esateak, baina ez dago beste erremediorik. Gauzak diren bezala dira. **Mindu** egingo da hasieran, baina gerora eskertu egingo dizu.

AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik Otsailaren 19ra

Euskaraz ongi moldatzen zara, baina ez zara nobela bat euskaraz idazteko **gai**. Pazientzia behar duzu, eta **apaltasun** pixkat. Irakasleek «Axular» **ezizena** jarri dizute. Barre egiten dute zure bizkar. Irtenbidea bilatu.

PISCIS

Otsailaren 20tik Martxoaren 20ra

Bai, aberastu egingo zara. Bi mende barru, orde. Amorante gozo batekin gau zoragarria pasako duzu. Hurrengo berraragipenean, orde. Jokoa zorte ikaragarria pasako duzu. Baina argi ibili: hamar minutuz bakarrik!

URLIA. - Fulano. Urlia, sandia eta berendia. Fulano, zutano y mengano.

ZERA. - Una cosa.

ADISKIDETU. - Amigarse.

TOKITAN BIZI DA. - Lekutan bizi da, urruti bizi da.

LAGUNDUIOZU. - Lagun iezaiozu. Ayúdale.

BIZIKI. - Asko, txit. Mucho, vivamente.

LURRIN. - Perfume, colonia.

ILEAPAINDEGI. - Peluquería, salón de belleza.

ONURAGARRI. - Probetxuzkoa. Util.

MINDU. - Atsekabetu. Dolerse.

DEBEKATU. - Eragotzi, galarazi. Prohibir.

BARAURIK. - Ezer jan gabe. En ayunas.

BEHAR GORRI. - Premia gordina. Grave necesidad.

LILURA. - Xarma. Encanto, pasmo, ilusión.


GAIZAN. - Gauza edo kapaz izan.

APALTASUN. - Umiltasuna. Humildad.

EZIZEN. - Goitizena, gaitizena. Apodo.

AHAIDE. - Familiartekoa. Pariente.

KOITTAUA! - Gizarajoa! gaizagaixoa! ¡Cuitado!



HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde Autonomiaduna



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO